


eman ta zabal zazu



UPV EHU

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (SARRIKO)

GRADU AMAIERAKO LANA

**GRADU BIKOITZA ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA
ZUZENDARITZA ETA ZUZENBIDEA**

**BENIDORM KASUA: MIRARI TURISTIKOA EDO MAISU-
LANA?**

IKASLEA:

MAIALEN ARRIETA URIARTE

TUTOREA:

AMAIA GARCIA AZPURU

BILBOn, 2024ko otsailaren 14an



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
2.	HIPOTESIA ETA HELBURUAK.....	3
3.	JUSTIFIKAZIOA	4
4.	METODOLOGIA	5
5.	TURISMO ESTRATEGIAK: POLITIKAK ETA ESTRATEGIAK.....	6
6.	BENIDORMEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA ETA HISTORIKOA	9
6.1	Benidorm mapan	9
6.2	Benidormen historia	10
6.2.1	Benidormen historia jatorritik 1950 arte	10
6.2.2	Benidormen historia 1950. urtetik aurrera.	14
7.	BENIDORMEKO HIRI ANTOLAMENDU PLAN OROKORRA (1956).....	15
7.1	1956KO HIRI ANTOLAMENDU PLAN OROKORRAREN AURREKARIAK	15
7.1.1	Espainiako momentu historikoa.....	16
7.2	BENIDORMEN AURKEZPENA MUNDURA	18
7.3	1956KO BHAPOKO PROTAGONISTAK.....	19
7.4	BIZTANLERIAREN ERREAKZIOA 1956KO BHAPOREN AURREAN.....	23
7.5	HIRI ANTOLAMENDU PLAN OROKORRAREN AZTERKETA.....	24
7.5.1	1956ko BHAPoren edukia.....	25
8.	BENIDORMEN EBOLUZIOA 1956KO BHAPOTIK AURRERA	28
8.1	Espainiako turismo politikak eta masa turismoaren garapena	31
8.2	Benidormen bilakaera turismoari eta urbanismoari dagokionez.....	35
8.2.1	1956-1962 tartea: masa turismoaren hasiera.....	35
8.2.2	1963ko Benidormeko Hirigintza Plan Orokorra eta Hiri Bertikala	38
8.3.3	1964tik gaur egunerarte: Ongizatearen hiria.....	42
9.	ONDORIOAK	48
10.	BIBLIOGRAFIA	50

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1: Benidormen mapa orografikoa.....	10
Irudia 2: Almadraba arrantza teknika	11
Irudia 3: Benidormeko antzinako gaztelua	11
Irudia 5: Benidorm arrantza herrixka zenean.....	12
Irudia 4: Benidormen argazkia zerutik	12
Irudia 6: Bilbaino Hotela Levanteko hondartzan.....	13
Irudia 7: Errazionamendu orriak	14
Irudia 8: "Asi sera Benidorm" aldizkariko zati bat	18
Irudia 9: "Asi sera Benidorm" aldizkariko zati bat	18
Irudia 10: "Así será Benidorm" aldizkariko zati bat	19
Irudia 11: Pedro Zaragoza Orts.....	19
Irudia 12: emakumeak bikinian Benidormeko hondartzan.....	21
Irudia 13: Pedro Zaragoza eta Francisco Franco eskua ematen.....	21
Irudia 14: BHAPOn espedientea eta jatorrizko planoak.....	25
Irudia 15: HAPOk hirigintza kalifikazioen planoak	27
Irudia 19: Benidorm 1960. urtean	37
Irudia 20: Tranbia-eraikin baten planoak.....	37
Irudia 21: Eraikinen tipologiaren eboluzioa	38
Irudia 22: Benidorm 1965. urtean	40
Irudia 23: Fontlamar eraikinaren planoak.....	40
Irudia 24:Levanteko hondartzako eremu urbanizatua, goitik begiratu ezkerre	42
Irudia 25:Levanteko hondartzako eremu urbanizatua, lurretik zuzen begiratu ezkerre.....	42
Irudia 26:Benidorm 70. hamarkada hasieran	43
Irudia 27: Benidormeko argazkia gaur egun. La Cala eta Poniente	47
Irudia 28: Levanteko hondartza gaur egun.	47
Irudia 29: Ponienteko hondartza gaur egun	47
Irudia 30: Pedro Zaragoza Benidormeko antzinako planoak begira, atzean gaur egungo Benidorm duelarik	50

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Benidormeko biztanleria 1950. eta 1960. urteetan	30
Taula 2:Espainiako biztanleria, Espainiara iritsitako turista kopurua eta turismoagatikoko diru sarrerak 1940tik 2000 urtera	32

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1:Espainiako biztanleria eta Espainiara iritsitako turista kopurua 1940tik 2000 urtera.....	33
Grafikoa 2:Espainiako turismoagatikoko diru sarrerak 1940tik 2000 urtera	34
Grafikoa 3:Benidormeko biztanleria eta Benidormen gaua igaro zuten pertsona kopurua 1960tik 2020ra.	44

1. SARRERA

1950. urtean Benidorm 2.789 biztanle zituen kostalde zuriko herrixka txiki bat zen, nekazaritza eta arrantza zirelarik bertako jarduera nagusia. Gaur egun, 69.738 biztanle bizi dira, 2022. urtean 9.794.100 turistak igaro zuten gaua bertan, eta Mediterraneoko Manhattan bezala ezagutzen da.

Jendez gainezka dauden hondartza luzeak, argi koloretsuz eta festa bila dabilen jendez josita dauden pasealekuak, ortzemugatik ikusten diren etxe orratz multzoa... dira Benidorm entzutean burura etortzen diren lehen gauzak, baina denek buruan sortua duten ideia hau ez da beti izan horrela. XX. mendearen erdialderarte, Benidorm arrantzatik bizi zen herri txiki bat zen, kale nagusi batekin eta Levanteko hondartzan pasealeku arrunt batekin. Ez zen izan 1955. urte arte hau guztiz aldatuko zela, eta herri honek inoiz jasango zuen aldaketarik handiena jasango zuela.

Garai horretan Espainiako sektore turistikoa eztanda izugarria izateko zorian zegoen, bai Frankoren gobernuaren ekimenagatik bai nazioartean garatzen zegoen fenomeno turistikoa. Izan ere, turismoaren sektorea ez da izan beti gaur egun ezagutzen den moduko. “*Sol y Playa*” modelo turistikoa 1960. urtetik aurrera hasi zen sortzen eta garatzen, arrakasta izugarria izatera heldu arte. Modelo hau batez ere Mediterranear itsasoak ukitzen dituen herrietarako pentsatu zen, baina, zergatik izan zuen horrelako arrakasta izugarria Benidormen? Zerk ezberdintzen du hiri hau inguruan dituen besteetatik?

Esan bezala, pentsa daiteke kokapenagatik, bai udan bai neguan tenperatura egokia dagoelako edo urtean zehar ia egun denetan eguzkia dagoelako izango dela. Baina ezaugarri horiek Kostalde Zurian kokatuta dauden beste herri batzuk ere betetzen dituzte, adibidez Altea, Calpe eta Javea. Beraz, zerk egiten du berezia Benidorm?

2. HIPOTESIA ETA HELBURUAK

Lan hau ikerketa osoa zeharkatu eta gidatuko duen gai batetik abiatzen da, eta honako hau planteatzen du: Zergatik izan zuten horrelako arrakasta Benidormek izandako hazkunde

proiektu ezberdinek? Proiektuek hiriaren ezaugarri geografiko eta demografikoengatik, une historikoagatik baina, batez ere, gobernuaren babesagatik arrakasta izan zuen hipotesitik abiatzen da. Beraz, hipotesi hau egiaztatzeko, helburu nagusi bat eta sei helburu espezifiko planteatzen dira.

Benidormen garapen ekonomiko, urbanistiko eta turistikoa aztertzea izango da lan honen helburu nagusia, eta helburu hau betetzeko, azterketa batzuk egingo dira pixkanaka, ikerketaren erritmoa eta emaitzak markatuko dituztenak, eta honako bost helburu espezifiko hauetan bilduko dira:

1. Herriaren sorreraren eta historiaren azterketa bat egin, garaiko biztanleria, ekonomiaren oinarria eta hirigintza modeloaren analisia barnebilduz.
2. 1956. urteko hirigintza plana nola eraman zen aurrera eta zein izan zen bere arrakastaren funtsa ikertu. Proiektu honetan parte hartu zuten pertsonaiak identifikatu, hauek hartutako erabakiak eta erabaki hauek burutzeko modua analizatu.
3. Gaur egun arteko Benidormeko biztanleriaren, garapen urbanistikoaren eta turismoaren eboluzioa aztertu, eta ea 1956. urteko hirigintza plan orokorrak planteatutako helburuak lortu ziren edo ez baloratu. Ondorioz, 1963ko Hirigintza Plan Orokorra ere aztertuko da, gaur egun arte izandako eboluzioarekin batera.
4. Benidormen eboluzioan Espainiako ekonomiak eta turismoaren norabideak eragindako gorabeherak behatu.
5. Ikuspegi orokor batetik “*Sol y Playa*” turismo masiboko modeloa analizatu. Noiz hasi zen garatzen, zerk eragin zuen garatzea eta zer lortu nahi zen, nola eragin zuen Espainiako biztanlerian eta nolako ondorioak izan dituen garai hartatik gaur egunerarte Benidormen.

3. JUSTIFIKAZIOA

Gratu Amaierako Lana egiteko gai hau aukeratzera bultzatu nauen interesa Benidormen gertatu zen mirarien arrazoia ulertzen saiatzea izan da. Mundu mailan oso ezaguna den hiri bat da, batez ere bere jai giroagatik eta uda garaian jasaten duen masifikazioagatik. Hala ere, gauzak ez ziren beti horrela izan. Bi hamarkada pasatxotan jasan zuen bilakaerak

interesgarria egiten du aldaketa izugarri hori nola planifikatu zen, hura abian jartzeko baimena nola lortu zen eta/edo bertako biztanleriak nola bizi izan zuen aztertzea.

Ikerketaren gaia interesgarria da ez bakarrik maila pertsonalean, baita maila zientifikoan ere; izan ere, GRAL honen bidez Benidormen gertatutako miraria ulertu nahi da: nola duela 70 urte, arrantza-herri txiki bat erakargarri turistiko bihurtu zen nazioartean. Mirari hori sortu zuen plangintzari buruzko azterketa bat, hura gauzatzeko behar diren baliabideak eta tokiko biztanleek garapen-prozesu osoan izan dituzten bizipenak guztiz egokiak dira gradu amaierako lan baterako.

Ildo horretan, turismoaren sektorea interes orokorreko eremua da. Azken urteotan Europan zehar bidaiatzen aritu naiz, eta honek masa turismoaren bi aurpegiak ondo ezagutzera ahalbideratu dit. Mediterranearen itsasoak ukitzen dituen lur denak turismo masifikatura ahalbideratuta daude orokorrean, apartamentu eta hotel turistikoak josiz garai batean basoak ziren lurak. Alde batetik, gaineratik begiraturaz gero, familiaz betetako hondartzak, jatetxeak guztiz beteta eta ekonomiaren mugimendua ikusten dira, baina sakonago begiraturaz gero, ilunagoa den errealitate bat ikus daiteke. Kasu askotan, bertako biztanleriak ere alde egin behar izan du ezinezkoa delako leku horietan bizitza arrunt bat aurrera eramatea, etxebizitzaren prezioak ikaragarri garestiak direlako, eta okindegiak eta farmaziak turistentzako lokalak bihurtu direlako gaur egun. Horregatik, Benidorm erabiltzea Espainiako modelo turistiko honen garapena aztertzeko aukera egokia izan daiteke baina, baita ere mirari turistiko honi zergatia bat bilatzeak beste herrialde askotako proiektuek zergatik ez duten emaitza berdina lortu azaltzen lagunduko du; eta ez bakarrik mundu mailan, baizik eta Estatu mailan ere, badaudelako hainbat hiri tankera honetako hazkunde urbanistikoa jasan dutenak, baina inoiz ez Benidormekoa bezalako magnitudeetan.

4. METODOLOGIA

Datuak tratatzeko estatistika erabiliz, azterketarako aldagai interesgarrien urteko aldakuntza aztertuko da. Beraz, honako hauekin egingo da lan:

1. Benidormen ezaugarri geografiko, ekonomiko eta populazionalak.

2. Benidormen turistaren, hotelaren, turismo-etxeen eta erroldatutako biztanleen bolumenari buruzko adierazleak.
3. Turismo sektorearen datuak estatu-mailan.
4. Biztanleriaren datuak estatu-mailan.
5. Benidormeko turismo-garapeneko prozesu osoan garrantzitsuak izan diren akordioak
6. eta lurraldeko biztanleek jasan behar izan dituzten bizipenak eta egokitzapenak.

Horretarako datu-base ofizialak erabiliko dira: estatukoak, autonomikoak eta udaletakoak (INE-ENI, Udalak, Valentziako Autonomia Erkidegoa...), bai eta gaiarekin lotutako hainbat txosten eta legeria ere. Azken batean, kasuaren azterketa bat egin behar da, izaera kuantitatiboagoko informazioa kualitatiboagoa den beste batekin konbinatu nahi da, hura ustiaturik eta interpretaturik. Horri esker, masa-turismoaren fenomenoak eta bilakaera aztertu ahal izango dira. Zehazki, Benidormen hazkunde arrakastatsuen arrazoia aurkitzen saiatuko da.

5. TURISMO ESTRATEGIAK: POLITIKAK ETA ESTRATEGIAK

Turismoaren Mundu Erakundeak honela definitzen du Turismo Politika: sektore publikoa osatzen duten administrazio eta erakunde guztietatik garatzen den ekintza da, jarduerak publikoari nabarmen eragiten diona. Turismoko Administrazio Nazionalak proposatutako beste definizio baten arabera, baliabide turistikoak hobeto aprobetxatzeko hartutako neurrien multzoa da (Arcoraci, 2009).

Horrela, turismo-politikaren helburu nagusietako bat turismo eskaria sustatzea da, hainbat neurri mota aplikatu ahal izateko, hala nola, monetaren devaluazioa, marketin-kanpainak, herrialdearen kanpoko irudia hobetzea, bai eta produktuak nazioarteko azoka eta erakusketetan aurkeztea, turismo-enpresei laguntzea eta atzerriko enpresak ezartzearen aldeko neurriak hartzea ere. Ekimen publikoko ekintzek eragin handia dutenez arlo ekonomikoan eta sozialean, arau fiskal ugari daude, hala nola enpresei dirulaguntzak ematea.

Turismo politikak hainbat instrumentu ditu bere eskura. Tresna bakoitzak berezko izaera, helburu eta izaera ditu, eta haren erabilera alternatiboak edo aldiberekoak da politikaren benetako estrategiak ezagutzeko aukera ematen du. Hala nola, instrumentu hauek antolakuntza instrumentuak, plan orokorrak, programak, arauak, finantza instrumentuak eta komunikazio ekintzak lirarteke (Velasco, 2005).

Estrategia turistikoak urtez urte aldatzen joan dira Espainian, momentuko ideologiaren eta gizarte ohituren arabera; estrategia hauekin lortu nahi zen helburua ere aldatu egin da. Horregatik, azken batean turismoa etengabeko bilakaeran eta garapenean dagoen jarduera ekonomikoa da.

“Hay que tener visión estratégica 24/7 los 365 días del año. Estoy convencido de que una estrategia, más que generar oportunidades, debe de tener la capacidad, adaptabilidad y resiliencia para convertir desafíos en oportunidades de gran potencial para el desarrollo económico, social y medioambiental de cualquier destino o empresa turística” (Mena, 2021).

Esanak esan, bi turismo estrategia bereiziko dira aipatutako faktoreen arabera:

- **Lidergo-estrategia kostuetan:** Estrategia honekin lortu nahi dena merkatuaren zati handi batengana heltzea da ahalik eta prezio baxuena eskainita. Hau da prezioen lehia bat da, prezio baxuekin lidergoa lortzeko asmotan. Hala ere, Cease turismo eskolaren arabera, estrategia honek bere arriskuak ditu, adibidez kalitate baxuaren pertzepzioa ematea edo aldaketetara azkar egokitzeko prestatuta ez dagoen sistema baten zurruntasuna izatea (Bayón et al., 1999).

Estrategia hau 60. hamarkadatik 90. hamarkadaraino izan zen erabilia Espainian. Zehazki, 1962-1975 urteen tartean gauzatutako turismo-politikaren helburu nagusia hazkunde maximoa lortzea izan zen. Herrialdeak dibisak behar zituen, eta turismoak eman zitzakeen, beraz komenigarriena zenbat eta gehiago haztea zela pentsatu zen, bai eskariari dagokionez, bai eskaintzari dagokionez. Hau lortzeko Estatuak ondorengo politika turistikoak eraman zituen aurrera batik bat:

- Prezioen kontrola eta zerbitzuen kalitatea.
 - Ostatu-ahalmena sustatzea; eta
 - Administrazio-antolamendua.
- **Desberdintze-estrategia produktuan eta kalitatean:** Desberdintze estrategiarekin eskaintzen diren produktuak eta zerbitzuak lehiakideenarengandik bereiztea bilatzen da. Prezioen lehia bat izan beharrean produktuen lehia bat da, lehiakideen eskaintzetatik bereiztea lortu nahi delarik merkaturak erakartzeko. Kasu honetan ere, Cease turismo eskolak aipatzen duenez, estrategia honek ere bere alde txarrak ditu. Besteak beste, ez litzateke egokia aplikatzea lehiakideek erraz imitatu eta hobetu ditzaketan zerbitzuetan. Gainera, koherentzia handia eskatzen du mezuaren, mezua zuzentzen zaien bezeroen tipologiaren eta bezero horiek hautemandako kalitatearen artean (Bayón et al., 1999).

Estrategia hau eta honek ekarri zituen politika turistikoak Espainiar Konstituzioa promulgatu eta urte batzuen buruan hasi ziren aurrera eramaten. Turismoa aldaketa garai batean sartzen zegoen, eta, gainera, Estatuaren lurralde antolamenduaren aldaketak politika guztien berrikusteko beharra ekarri zuen. Izan ere, turismoaren eskuduntza transferitua izan zen Autonomia Erkidegoetara, eta honek hasiera batean zaildu bazuen ere orain Estatu osatzen zuten subjektu ezberdinen arteko kolaborazioa (eta beraz politika turistiko argi bat izatea), azkenean ulertu zen elkarlan baten beharrez zegoela, eta helburu berriak finkatu ziren: Lehiakortasuna, kalitatea, eraginkortasuna, dibertsifikazioa eta iraunkortasuna (Pellejero, 2002).

Espainiako Turismoaren Liburu Zuriak, 1990ean kaleratua izan zenak, ondorengo aholkuak ematen zituen politika turistikoa berritzeko asmotan: 1) lidergoa kalitatea-prezioa erlazioan, batez ere “*Sol y Playa*” eredu turistikoan; 2) “*Sol y Playa*” ez diren segmentuetan bereiztea, baldin eta Espainiak arrazoizko merkatu-kuotak lortu baditzake eta kostuen lidergoa izatea ez bada ezinbestekoa; eta 3) espezializazioa ordezko produktuak agertzeko arrisku txikia eta lehiakideen ahultasun handia dagoen kasuetan.

Hau lortzeko, bai Estatuak bai Autonomia Erkidegoek ondorengo politika turistikoak eraman zituzten aurrera besteak beste:

- Informazio- eta seinaleztapen-sistema turistiko homogeen bat ezartzea.
- Turismo iraunkorreko programa bat egitea.
- Espainiako kalitate turistikoaren markaren irudia ezartzea eta orokortzea.
- Gastronomiaren nazioarteko sustapena (Turismoko Idazkaritza Nagusia, 1990).

6. BENIDORMEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA ETA HISTORIKOA

Ikerketa honekin hasteko Benidormen kokapena, sorrera eta historiaren laburpen bat egingo da. Hiriaren jatorria eta hasiera batean zuen izaera ulertzea garrantzitsua da, gero jasango zuen aldaketa handiaren zergatiak ondo ulertzeko. Beraz mapan kokatzeaz aparte, jatorriak aztertuko dira, ekonomia zertan oinarritzen zen, biztanleriaren kopuruaren mugimenduak eta herriaren eboluzio urbanistikoa aztertuko da. Guzti hau 1950. urteraino azalduko da, urte horretatik aurrera hasi baitziren Benidormen garapen urbanistikoaren lehen pausoak. Beraz, esan liteke hiriaren historia bi fase nagusitan banatzen dela: Sortu zenetik 1950. urterarte, eta 1950. urtetik gaur egunera.

Historian zehar ibilbidea hasi aurretik, hiria mapan kokatuko da, eta bere orografia ere gainetik azalduko da.


6.1 Benidorm mapan

Udalerria Valentziako Autonomia Erkidegoan dago, Alacanteko probintzian, Marina Baxuko eskualdean zehazki. Erkidegoko hiriburutik 120 km-ra eta probintziako hiriburutik 40 km-ra gutxi gorabehera. Alacanteko eremu honi Kostalde Zuria deitzen zaio, Benidormez aparte bestelako udalerriek ere osatzen dutena, adibidez Kalpe eta Altea. Esan beharra dago bere eskualdeko populazio gehien duen udalerria dela, 69.738 biztanlerekin eta 1792 biz./km²-

ko dentsitatearekin 2022an, INEko datuen arabera. Ereku funtzionaleko biztanleria, udalerrri mugakideek osatua, 200.000 biztanle ingurukoa da.

Irudia 1: Benidormen mapa orografikoa

Orografiari dagokionez, nahiko berezia dela esan daiteke. Izan ere, badia batean dago kokatuta, baina inguruan haizetik babesten duten mendilerro ugari ditu; Sierra Helada mendilerroko parke naturala, ekialdetik; Sierra Cortina eta Puig Campana iparraldetik eta Teso de la Cala mendebaldetik. Erliebe berezi hau izateak mikroklima propioa izatea eragindu.



Iturria: topographic-map.com

Puig Campana mendiak 1400 metroko altuera du, eta mendi multzoaren altuera orokorrean ere handia da, beraz neguan ez die uzten hodei baxuei eta hotzari pasatzen. Gainera, hiria hegoaldera begira dago, eta planetaren goiko erdian zaila da eguraldi txarra hegoaldeetik etortzea. Beraz, guzti hau batzen bada, emaitza urtean 300 eguzki-egun baino gehiago eta batez besteko tenperatura konstante samarra da, 19 gradu zentigradukoa gutxi gorabehera (Maestre, 2019).

6.2 Benidormen historia

Benidormen historia bi unetan banatuko da: (1) Benidormen jatorria 1950 arte, eta (2) 1950tik aurrera gertatutakoa.

6.2.1 *Benidormen historia jatorritik 1950 arte*

Hiri honen historia Kristoren jaiotzaren aurretik hasi zen Iberoekin. Hauek orokorrean arrantzaleak ziren, I. eta III. menderarteko aurkikuntza arkeologikoen arabera. Gerorantz, greziarrak, feniziarak eta erromatarrak ere utzi zituzten beraien aztarnak.

Iberiar Penintsulako eremu asko bezalaxe XIV. menderaino musulmanen eskuetan egon zen herria, errekonkistatua izan zen arte Errege Katolikoek eskutik. Momentu honetan feudalismoaren ereduak zabaldu zen penintsula osoan zehar, eta eremu hau Bernardo Sarriakoaren eskuetan geratu zen.

Beronek sortu zuen Benidorm 1325. urtean hiri-gutunaren bidez. Urte horietakoa da ere Canfilako muinoaren gainean zegoen gaztelua, gaur egun desagertuta dagoena.

Gaztelua defentsarako eraiki zen, XV. eta XVI. mendeetan piratak maiz erasotzen zutelako eremu hau. Beraz Benidorm defentsa-posizio bihurtu zen, baina bizi-baldintza zailekin, eta, ondorioz, ia hutsik egon zen denbora luzez, 50 pertsona bizi zirelarik bakarrik. Familia hauek arrantzatik bizi ziren, baina ez honekin negozioak egiteko, baizik eta elikatzeko eta bizirik iraun ahal izateko. Arrantzaleek metodo berezi bat erabiltzen zuten atuna arrantatzeko, “*Pesca de Almadraba*” deitua, Espainia osoan ezaguna bilakatuko zena gerorantz. Piraten hainbat eraso jasan zituzten urte hauetan, eta Benidormeko biztanleak mugakidea zen herrira, Polopera, joan behar izan ziren babestera, azkenean bi herriak bat egin zutelarik.

Irudia 3: Benidormeko antzinako gaztelua



Iturria: HistoBenidorm

Irudia 2: Almadraba arrantza teknika



Iturria: HistoBenidorm

300 bat urte geroago, Beatriz Fajardo de Mendozak jarauntsi zituen lurrak, eta ikusita ez zirela errentagarriak bere jaurerrirako, beste hiri gutun baten bidez birfundatu egin zuen Benidorm, Polopetik independizatu, eta hainbat inbertsio egin zituen lurrak errentagarriak bihurtzeko. Horien artean garrantzitsuena Alfazeko Ureztatze Nagusia izan zen, udal-mugartearen zati bat ureztatzea lortu zelako eta horrela biztanleria erakartzea.

XVIII. mendearen amaieran jada komunitate garrantzitsua osatu zen, nekazaritzan, merkataritzan, nabigazioan eta arrantzan espezializatu zena. Atunen arrantzan Almadrabarekin espezializatzea abiapuntu egokia izan zen herria hazten hasteko.

XIX. mendeko bigarren erdialdean Valentziako eta Alacanteko garraio-sarea garatu zen, eta honek Madrilgo eta Alcoyko egoiliar dirudunak Benidormera iristea ahalbideratu zuen udak pasatzera. Baina ez zen izan 1852. urterarte herritarrek lehen aldiz beste begi batzuekin begiratuko zutela turismoaren negozioa.

Izan ere, XIX. mendean, Benidorm atsedean hartu nahi zuten pertsoneri harrera egiteko leku ezin hobea izan zitekeela pentsatzen hasi ziren garaiko biztanleak. Beraz urte horretan Ama Birjinaren bainuetxea eraiki zen garaiko osasunaren moda aprobetxatuz, itsasoko uretan bainuak hartzea eta eguzki asko hartzea.

Irudia 4: Benidorm arrantza herrixka zenean



Iturria: La vangaurdia

Irudia 5: Benidormen argazkia zerutik



Iturria: La vangaurdia

Bainuetxea eraikitzeak garaiko turista ugari erakartzea ekarri zuen, eta lehen ostatuak eraiki ziren bezero hauei harrera emateko: *La mayora, La Plaza, Fonda casa de baños...* Horregatik, inflexio-puntu bezala hartzen da momentu hau, herriak arrantza atzean uzten hasi eta jarduera berri horretan jarriko baitzuen arreta puntu honetatik aurrera. Hori bai, arrantzak herriko jarduera nagusia izaten jarraituko luke joan den mendeko 50eko hamarkadara arte.

Gehitzeko, Benidormen historian beste puntu garrantzitsu bat Botijo trenaren eraikuntza izan zen. Tren honek Madrid-Zaragoza-Alacant ibilbidea egiten zuen, beraz Espainiaren barnealdeko jendea Kostalde Zurirantz hurbiltzea ahalbidetzen zuen oporrak igarotzera. Isabel II.a erreginak 1858ko maiatzaren 25ean inauguratu zuen, eta 24 urteren buruan 35.000 turista Benidormeko hondartzetaz gozatzera ekartzea lortu zuen. Gertaerari Silla-Alacant errepide berriaren eraikuntza eta 1914an “*Trenet de la Marina*” bide estuko trenbidearen etorrera gehitu behar zaizkio, hauei esker turismo-jarduerak hobera egin baitzuen, Benidormera heltzea gero eta errazagoa eta merkeagoa zelako familia guztientzat.

1925. urtean Benidormen historiako turisten lehen “*overbooking*”-a eman zen. Zabalik zeuden ostatu guztiak alemaniar turistaz bete ziren, eta Benidormeko herritarrek beraien etxeak egokitu behar izan zituzten familiak oporrak igaro zituzten. Horregatik, hotel gehiago

Irudia 6: Bilbaino Hotela Levanteko hondartzan



Iturria: Arsenal (2017). Aquellos fabulosos veraneos

eraikitzen dira, egoeraren erakargarrtasuna ikusita. Bisionario horietako bat Pedro Cortés Barceló izan zen, Hotel Bilbaoren sortzailea. Hotel honek 1926an ireki zituen bere ateak, eta ordutik etenik gabe funtzionatu du Levanteko hondartzako lehen lerroan. Urte batzuk geroago, 1931 eta 1935 tartean probintzia osoan zehar eman zen hazkunde urbanistikoa, baina ez zen izan 50 eta 60. hamarkadaraino benetako mugimendu turistikoa eta urbanistikoa emango zela.

6.2.2 Benidormen historia 1950. urtetik aurrera.

1951ko urtarrilaren 24an Pedro Zaragoza Ortsek (alkatea 1950etik) aldaketa baten beharra ikusita, Benidormeko bizilagunak bildu zituen Ronda Kasinoan, eta herria gainbeheratik libratzeko ideia aurkeztu zien: Benidorm udatiarren hartzaile bilakatzea. Honetarako noski egoiliarren inplikazioa behar zen. Honi gehitu behar zaio ere 1952. urtean *Racó de I'Oix*-eko Almadrabak (“Loixeko bazterra” deitzen zen orduraino martxan egon zen arrantza taldea, Almadraba teknikaren bidez atunak ehizatzen zituena) bere jarduera bertan behera utzi zuela arrain urritasunagatik. Garai hartan familia askorentzako janaria ondasun urria zen.

Irudia 7: Errazionamendu orriak



Iturria: Arsenal (2017) *Aquellos fabulosos veraneos*

Hainbeste non, 1944, 1947, 1950, 1954 eta 1960 urteetan janaria, arropa eta dirua zuten otarreak banatu baitezkaizen herritarrei, eta 1940ko hamarkadako lehen urteetan errazionamendu orriak erabili ziren janaria eskuratzeko. Honen ondorioz, Pedro Zaragoza jaunak zuen ekimena etorkizuneko negozio bezala ikusi zuten auzokideek, eta honen alde egin zuten era sutsu batean.

Benidormen etorkizuna turismoan zegoela sinetsita, 1952. urtean udalbatzarrari aurkeztu zion ekimena, ondorengo esanez: “*Tenemos que escoger entre salvar Benidorm de la ruina y convertirlo en una importante estación veraniega o verlo languidecer hasta morir*” (Arsenal, 2017, 87 or.), osoko bilkurak babesa eman zion.

Momentu hartan hasi zen beraz Benidormen historiaren bigarren atala, arrantza herri txiki bat izatetik mediterranean Manhattan izatera igaroz. Aldaketa hori 1956ko Hiri Antolamendu Plan Orokorrean ezartzeak ahalbidetu zuen (Benidormek Udala, 1956), eta hurrengo atalean garatuko da.

7. BENIDORMEKO HIRI ANTOLAMENTU PLAN OROKORRA (1956)

7.1 1956KO HIRI ANTOLAMENDU PLAN OROKORRAREN AURREKARIAK

Pedro Zaragozaren alkatetzan publizitate kanpaina ugari eraman ziren aurrera herria nazioartean ezagutarazteko. Eta, Benidormeko Hiri Antolamendu Plan Orokorra (BHAP) hemendik aurrera) 1956. urtean argitaratu bazen ere, horren aurretik lan, negozio eta mugimendu ugari egin ziren honen bideragarritasuna aztertze eta plana aurrera eramateko baliabideak lortzeko.

Lehenik eta behin udaletxeak Benidormen momentuko errealitatea eta eskura zituen baliabideak aztertu zituen, etorkizunerako plan egoki bat garatzeko.

1952an zazpi hotel eta 4 pentsio zituen herrixkak, guztiak ahalmen txikikoak, handienek 50 pertsona pasatxo har zitzakeelako. Beraz, hondartzak eta aisialdirako lokalak lasaiak ziren.

Urte haietan, Benidormeko hirigunea oso txikia zen (2.500 pertsona inguru bizi ziren bertan) eta gune turistikoa batez ere Levanteko hondartza zen. Ponienteko hondartza ia eraikinik gabeko lekua zen, olibondoak nagusi zirelarik. Itsasotik oso gertu zeuden palmondoak nabarmentzen ziren, honek hondartzari paradisu itxura ematen ziolarik, eta hau izan zen Benidormek bere burua promozionatzeko eta planak arrakasta izateko erabili zuen karta nagusia: paradisu izaera.

Horren ondorioz, udaletxeak udal ordenantza bidez hondartzak babesteari ekin zion, hauek ahal ziren eta garbien eta kutsagabeen edukitzeko ahaleginetan. Honen adierazgarri da 1952ko ekainaren 20an Herri Lanetako ingeniariak herritar baten hondartzan kiosko bat eraikitzearen eskaerari emandako ezezkoa. Hondartzako kiosko bati buruzko ideia horrek berresten du 1950etik aurrera - zehazki 1952an udalbatzarrean aurkeztutako ekimenaren ondoren - Benidormeko herritarrak prest egon zirela turismoaren etorkizuneko erronkari aurre egiteko, eta horretan negozio- aukera ikusi zutela.

Horrenbestekoa zen herritarrak Pedro Zaragozarengan zuten konfiantza, beraien lurragi laga zituztela %100nean turismorako erabiliak izan zitezten. Beraz, turismoan oinarritutako Benidormen etorkizuneko erronka hondartzak egoera ezin hobean mantentzeko kontrol publiko batetik igaro zen, eta herritarren erabateko inplikazioa baliabide eta negozio propioekin.

Baina Benidormek zuen potentzial handia ezezaguna zen oraindik nazioartean, eta hau aldatu beharra zegoen. Horretan Pedro Zaragoza berritzailea izan zen, European aurrera eraman zuen publizitate kanpainaren ondorioz. Bere plana sinplea eta azkarra izan zen: Benidormen existentziaren berri ematea European publizitate-kanpaina bat eginez. Horrela, kanpaina osoa berak asmatu zuen: Laponiako elur-oreinen artzain-familia bat aurkitu zuen, eta Europako aireportu guztietara joan ziren, pankarta bat erakutsiz iparraldeko familia hori oporretan zihoala Mediterraneo eguzkitsura, Benidormera. Publizitate-kanpaina hau apartekoa eta berritzailea izan zen, eta mundu osoko egunkarien azaletara iritsi zen. Horrek ospetsu egin zituen bai Benidorm, bai alkatea.

Definitiban, bai Benidormeko udaletxeak, bai bertako biztanleriak, argi izan zuten gertatzeko zorian zegoen urbanismoko plan orokorrak arrakasta izango zuela, eta herriaren ezaugarriek eta herritarren lan gogorrak emaitzak emango zituztela azkenean.

7.1.1 Espainiako momentu historikoa

Hariarekin jarraituz, BHAPO garatu eta indarrean sartu zeneko momentu historikoa aztertuko da, ekonomian zentratuz batik bat. Izan ere, Espainia aldaketa garai batean zegoen barnebilduta 50. hamarkadan, beti ere frankismoaren barruan. Urte horietan bide autarkikoak nazioaren aukera ekonomikoak deuseztatzen zituela frogatu zenean, egoerari buelta emateko beharra agertu zen. Garai hartako ekonomia pobretu eta kanpokoarekiko zordun batek, Espainiakoa bezala, diru sarrerak behar zituen bere irteerarik gabeko kobazulotik irteteko. Irtenbidea, neurri handi batean, turismoaren ekarpen mamitsuetatik etorri zen.

Espainia beti izan zen arren turistengatik erakargarria zen helmuga bat, ez zen izan 1950. urterarte benetan sektore hau Estatuko ekonomian eragin esanguratsua sortzen hasiko

zela. Eztanda 1960. urtetik aurrera izan zen arren, 1950ean, Estatuak kuota apal bat baino gehiago zuen munduko turismo-merkatuan: turista guztien % 1,8 eta nazioarteko turismoaren bidezko sarreren % 0,8, Turismoaren Mundu Erakundearen datuen arabera. Zenbakietan, 2.339 mila kanpotar jaso ziren Estatuan beraien oporrak igarotzeko asmotan, eta hau, esan bezala, gobernuaren apustuaren ondorioa izan zen, ekonomia berpizteko ahaleginetan, Rafael Vallejoentzat hazkunde hau desorekatua izan zen arren.

Ideologia aldaketa hau hainbat faktoreren, Estatu barrukoak zein kanpokoak, ondorioz eman zen:

- Alde batetik, garaiko politikariak eta teoriarari ekonomikoak ohartu ziren ordurarte martxan zegoen sistema autarkikoak ekonomia ito egiten zuela. Errealitatea erakusten zuen Espainiako ekonomiak ezin zuela kanpoko merkatura jo gabe funtzionatu, eta mugek, autarkiak bermatu behar zuena bermatu beharrean, ekonomia itotzen zutelako, ustelkeriaren eta merkatu beltzen sorleku zirelako, gizartean ezinegon nabarmena sortuz. Hori 1951ko martxoan, apirilean eta maiatzean egindako grebetan islatu zen Bartzelonan, Euskal Herrian eta Madrilen erakusten zuten bezala.
- Bestetik, 1951. urtean gobernu aldaketa bat eman zen, eta berrikuntza ugari txertatu ziren sisteman. Turismoari dagokionez garrantzi handiena izan zuena Informaziorako eta Turismorako Ministerioaren sorrera izan zen, Gabriel Arias-Salgado y de Cubas izan zelarik ministroa.
- Azkenik, 1953. urtean Madrileko Itunak sinatu ziren, eta hauen bidez Espainiak baimena eman zien AEBetako Indar Armatupei beren lurraldean lau base militarretan jartzeko, laguntza ekonomiko eta militarren truke. Itunek eta laguntza ekonomikoek berebiziko garrantzia izan zuten ez bakarrik Espainiaren ekonomiari berpizten laguntzen, baizik eta erlazio hau aprobetxatuz (AEB-Espainia), Espainiak atek zabaldu zituelako mundura.

Gauzak horrela, BHAPO momentuko ideologia berritzaile honen aritik sortu zen, ikusita Espainia mundura zabaltzera zihoala eta turismoaren industria sustatzeko eta babesteko

asmoak zeudela, baita ordurarteko turisten zenbaki hazkorra ikusita, eta zehazki Benidormek zuen etorkizun oparoan itxaropenak jarrita.

7.2 BENIDORMEN AURKEZPENA MUNDURA

1955. urtean Benidormeko udalak “*Así será Benidorm*” (Benidormeko Udala, 1955) aldizkaria argitaratu zuen, eta honekin ondorengo helburuak lortu nahi ziren: España osoko herritarrei Benidormi buruzko informazio orokorra ematea, Benidorm bai neguan eta bai udan aisialdirako egokia zen herri bat zela jakinaraztea, jasotzen zituena baino turista gehiago jasotzeko prest zegoela esatea eta aldaketa garrantzitsu bat jasatera zihoala urte gutxiren buruan argi uztea.

Irudia 8: "Así sera Benidorm" aldizkariko zati bat

Mostramos en estas páginas la realidad presente de Benidorm, lo ya logrado y lo aún por lograr. Que basta con esto para que quien las hojee comparta nuestra fe en su magnífico porvenir...

Aldizkari honek funtsezko papera izan zuen bai herria ezagutarazten, bai honek jasango zuen aldaketari buruz informazioa ematean ere. Hasieran, herrixka 1955. urtean zegoen bezala aurkeztu zen, bereziki hondartzak aipatuz, eta adjektibo egokiak erabiliz paradisu kutsua emanaz.

Iturria: "Así será Benidorm" aldizkaria.. 1955

Irudia 9: "Así sera Benidorm" aldizkariko zati bat


Son más de cinco kilómetros de rubia arena, fina y limpia, de tendidísimos taludes, sin peligro alguno.
Y la playa es ahora fuente de vida y salud, que Benidorm ofrece con amor a cuantos nos visitan.

Iturria: "Así será Benidorm" aldizkaria.. 1955

Lehen aurkezpen horren ondoren, aldizkariak Benidormek kanpotarrei eskaini ziezaiekeen guztia kontatu zuen: Levanteko hondartzako itsas etorbide zabal bat, erabat egokitua, argiztatua eta zuhaitzez betea; bertan amaituko zuten kaleak planoetan marraztuta zeudela azpimarratuz. Azkenik, 1920tik 1945era bitarteko udako turistek neurtzen duen grafiko bat azaltzen da, irakurleei argi uzteko Benidorm kanpotarrek maiz bisitatzen duten helmuga bat zela. Horrela, 1954. urtean 12.516 turista zenbatu ziren.

Bestela esanda, “*Así será Benidorm*” aldizkaria Benidormek munduari egindako aurkezpen-gutun gisa erabili zela esan daiteke, herria sustatuz eta etorkizuneko aurreproiektuen planoekin erakutsiz. Horrela, jendeari Benidormen etorkizun oparoaren berri ematea lortu zen.

Irudia 10: "Así será Benidorm" aldizkariko zati bat



Iturria: "Así será Benidorm" aldizkaria.. 1955

7.3 1956KO BHAPOKO PROTAGONISTAK

1956ko HAPOkoko izar nagusia PEDRO ZARAGOZA ORTS izan zen. Benidormen jaioa 1922an, gaztea zenetik interesatu zitzaion politika eta urbanismoa. 1950. urtean alkate izendatu zuten herritarrek, eta herriko falangearen eta JONSen presidente karguekin batera onartu zuen hau ere (JONS Espainiako talde faxista bat izan zen 1931 eta 1934 artean, geroago Espainiar Falangearekin bat egin zuena). Frankismoaren jarraitzaile sutsua izan arren, aurrerakoia eta ameslaria izan zen Pedro, eta ez zuen izan beldurrik bere ideiak aurrera ateratzeko orduan, eztabaidatuak izan ziren arren.

Irudia 11: Pedro Zaragoza Orts



Iturria: Wikipedia

Zaragozak lider izaera zuen, karismaduna zen eta erraz lortzen zuen jendeak berengan konfiatzea izatea, bere ideietan sinesten bukatzen zutelarik. Honen isla da Benidormeko herritarrak berarengan ia modu itsuan konfiatu izana 1952an herria guztiz aldatzea proposatu zienean, eta udaletxeari lurrak dohaintzan eman izana, etorkizun hobeago baten itxaropenez. Pertsona karismatikoa eta sinesgarria izateaz aparte, Zaragoza

azkarra zen, eta jakin zuten Benidormen ordura arte gutxietsiak ziren baliabide garrantzitsuak identifikatzen, hala nola bertako biztanleen balioak eta herri moduan zuten pertsonalitatea. Bi urtez alkatetzan egon ondoren herritar guztiak konkistatuak zituen, eta Leon Arsenalek azaltzen duenez,

“Lo primero que hizo Pedro fue traer agua y asegurar su abastecimiento. Hecho esto, dimitió. La gente de Benidorm lo sacó de su casa en El Carrasco y lo llevó en hombros al Ayuntamiento. Siguió catorce años más de alcalde. (...) Los que no creían en Pedro, cuando trajo el agua y ya estaba el suelo replantado, le regalaron una piedra con la inscripción “De ilusión también se vive” que fue sumergida en la fuente del Parque de Elche (y allí sigue), (Arsenal, 2017, 90. or.)

Beraz argi dago maitatua zela denengatik.

Modu berean, marketineko jenio bat izan zela esan daiteke, urteetan zehar aurrera eramán zituen promozio ezberdinengatik eta hauek izan zuten arrakastagatik. Hauetako batzuen ondorioz Benidorm jendearen ahotan eta aldizkarien lehen azalean egon zen nazioartean zehar.

Adibide batzuk aipatzeagatik, Madrilen, *“Madrid se asoma al mar por Benidorm”* lelo ausarta zuen kartelak jarri zituen, eta bertako biztanleek berehala jakin zuten Benidorm “beraien” hondartza zela. Beste sustapen bat Stockholmeko abendu gordinean eramán zen aurrera. Kale nagusietako erakusleihoak bete zituen zuhaitz loretsuz, *“Benidorm. Espainia”* jartzen zutenak. Eta azkenik, Europako errepideetako bidegurutze estrategikoenetan *“A Benidorm km”* esaten zuten trafiko-seinaleak jarri zituen. Ondorioz, esan daiteke beti aurkitzen zuela modu original baina oso egokian promozionatzeko bere herria.

Azkenik, aipatzekoa da ere Pedro Zaragozak harreman estuak zituela garaiko Estatu buruarekin, Francisco Francorekin, alegia. Gobernuarekin zuen erlazio hau Benidormen hazkunde arrakastatsua gakoetako bat dela esan daiteke, abantaila ugari eskuratzea posibilitatea ahalbideratu zuelako. Haietatik aipagarrienetariko bat, bitxitasunagatik bada ere, bikiniaren erabileraren inguruan izan zen.

Europar zehar publizitate kanpaina ugari egin zirenez, denbora gutxiren buruan kanpotarrak etortzen hasi ziren hondartzez eta eguzkiaz gozatzera. Espainia momentu horretan frankismoaren garaian zegoen, elizak eta honen baloreak protagonismo handia zutelarik bai jendearen bizitzan bai instituzioetan. Baina balore hauek ez ziren berdinak Europako herrialde askotan, eta udako egun batean, suediar neska bati isuna jarri zioten bikinian freskagarri bat erostera joateagatik, eskandalu publikoa sortzen ari zela egotzita. Honetaz ohartu bezain azkar Pedro Zaragoza El Pardora abiatu zen, Vespan bide luzea eginez, Franko jeneralarekin entzunaldia eskatuz. Bitartean, Guardia Zibilak eta Valentziako artzapezpikuak bikiniaren erabilteza uzteko ideari salaketak jarri zizkioten.

Entzunaldi horretan ez bakarrik hondartzan, herri osoan bikiniaren erabilera baimentzeko eskabidea egin zion Zaragozak Francori, eta honek baimena eman zion. Ekintza honek berriro berresten du Zaragozak jendeari irabazteko eta bere interesen alde borrokatzeko duen gaitasuna. Baita frankismoaren zabaltze momentua antzematen da, turismoa sustatzea eta nazioartera zabaltzea baitzen beraien helburuetako bat garai honetan. Urte hauetatik aurrera, turismoa izango zen espektatiba handiak sortuko zituen ardatza, horietako batzuk kanpoko irudia hobetzera bideratuak eta beste batzuk gerraosteko urte gogorren ondoren sortzen ari ziren klaseak asetzerako bideratuak.

Irudia 13: Pedro Zaragoza eta Francisco Franco eskua ematen



Iturria: elcierredigital.com

Irudia 12: emakumeak bikinian Benidormeko hondartzan



Iturria: diariosur.es

1956ko HAPOko izar handia Pedro Zaragoza izan zen arren, figura askoren laguntza izan zuen hau garatu eta aurrera ateratzeko orduan. Planean parte hartu zuten pertsonaia garrantzitsu horietako bat Francisco Muñoz Llorens izan zen, udal arkitekto gisa kontratatu zutena (zehazki, Etxebizitza Ministerioaren Hirigintza Ataleko arkitekto-burua zen). Eta gainerako herritarrei eta Benidormeko udaleko kideei bezala, Zaragozak ere bere ametsekin kutsatu zuen Francisco Muñoz. 40 urte geroago, Francisco Muñozek ondorengo hitzak idatzi zituen 1956ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren memoria egin zenean:

“A los pocos días de iniciar los trabajos, yo mismo me decía: “Paco, aon t’an clavat=Paco, non sartu zara”, pero Pedro tuvo la gran habilidad de transmitir al resto de la Corporación como a mí mismo, su tremenda carga de ilusión; tanta, que yo to asumi profesionalmente como un reto muy importante. Pedro tenía muy claro lo que quería y el modo de conseguirlo, para lo que contaba con un perfecto conocimiento de su pueblo, de sus limitaciones, de sus posibilidades y sobre todo de la personalidad y forma de ser de sus paisanos” (Benidormeko Udala, 1996, 5 orrialdea).

Muñoz Llorensekin batera, Lurzoruaren Legearen idazleak diren Pedro Bidagort Hirigintzako zuzendari nagusia, Luis Rodríguez Hernandarias Arkitektura Eskolako irakasleak ere hartu zuten parte proiektuan, eta Manuel Muñoz Monasteriok, Etxebizitza Ministeriokoak. Azkenik, Guillermo Campos topografoa ere batu zen, tokiko talde txiki batekin (Luis Mayor, Pepe Enrique, Gregorio "el Casillero" eta Pepe Fuster) planoko marrazkia lekuan bertan jarritz. (Arsenal, 2017).

Llorensek azaldu zuenez:

“Respecto al equipo que confeccionó este primer Plan General de 1956, yo siempre he tenido la convicción de que el padre fue Pedro Zaragoza porque fue el que lo engendró; la madre fui yo porque me tocó parirlo y la comadrona fue Luis Rodríguez que lo hizo con gran profesionalidad y sin recurrir a la “cesárea”(Benidormeko Udala, 1996, 5. orrialdea).

Nahiz eta pertsonaia horiek 1956ko BHAPOn garapenean eta ezarpenean zeregin zehatza izateagatik nabarmendu, aipatu beharra dago herri osoak hartu zuela parte proiektu ambiziotsu honetan, hodiak jartzeko eta eraikitzeko lurrak utziz eta Pedro Zaragozaren ideia harrigarrietan guztiz inplikatur.

7.4 BIZTANLERIAREN ERREAKZIOA 1956KO BHAPONEN AURREAN

Lanean zehar esan izan da Benidormeko bizilagunak Pedro Zaragozarekin engaiatu zirela, eta hasieratik egin ez zutenek urte gutxiren buruan amaitu zutela egiten.

Hala ere, merezi du BHAPOn proposamena argitaratu aurretik egon ziren aurkako kexa edo iritzi horietako batzuk jasotzea.

Benidormen sortzen ari zen garapen planarekiko deserosotasun edo deserosotasun egoeren artean bi egoera jasotzen dira adibide gisa: lehena, 1950ekoa; eta bigarrena, 1953koa.

1950ean udako turismoan jarri zen atentzio-fokua, eta horrek ez zien diru-sarrerarik edo lanik ziurtatzen ez pertsona guztiei ez urte osoan. Egoera horren ondorioz, biztanleriaren zati bat ez zegoen pozik uda soilik indartzeko ideiarekin, urtearen zatirik handienean egoera ekonomiko ahuletan egotera behartzen baitzuten.

Era berean, 1953an La Cala inguruko Guardia Zibilen postuko komandanteak kexa bat jarri zuen alkatearen aurrean, hezeguneetako eltxoen izurritea eta paradisiako gisa iragartzen ari zen eremu batean paludismoa hartzeko arriskua salatuz, oasi tropikalaren itxura zuelako. Kontraesan bat agerian geratu zen “saldu” eta “zegoenari” dagokionez, eta pertsona batzuek ez zuten horrekin bat egiten, engainutzat hartzen zutelako (marketin engainagarria).

Nolanahi ere, hasiera batean Benidormeko biztanleek jasan zituzten eragozpen gehienak pixkanaka desagertzen joan ziren garapen-plana ezarri eta aurrez finkatutako helburuak gaingitu ahala.

7.5 HIRI ANTOLAMENDU PLAN OROKORRAREN AZTERKETA

1955ean Benidorm hazkunde fase batean zegoen, urte horretan 15.000 turistak igaro baitzuten uda bertan. Herriak 3000 biztanle inguru zituela kontutan hartuta, turista kopuru hori oso esanguratsua izan zen, tokiko biztanleria baino bost aldiz gehiago baita. Aurreikuspenen arabera, kopuru horrek gora egingo zuen hurrengo urteetan. Hala ere, turismo aurreikuspenei aurre egin ahal izateko beharrezkoa zen herria prestatzea, hau da, lur-eremu handiak gaitu behar ziren, uda- eta turismo-eraikuntzetarako eta aisialdiko ekitaldietarako. Horrek 1956ko Benidormeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren sorrera ekarri zuen (hemendik aurrera BHAPPO).

Pedro Zaragozak klase ertainarentzako udako oporretarako hiri bat nahi zuen sortu (Arsenal, 2017), baina Benidorm hain bereizgarria egiten zuten ezaugarriak albo batera utzi gabe: paradisu izaera. Berebiziko garrantzia eman zitzaion hondartzan eta gerriko berdearen mantenuari, eta hau BHAPPOren 5. Tituluan isladatzen da:

“TITULO V: Playa. Se prohíbe la construcción de edificios de cualquier clase o locales en la zona comprendida entre el mar y el paseo marítimo de la playa, así como instalaciones temporaneas, quioscos, barracas, etc, excepto lostoldos y sombrillas que se ajustarán a las normas que a este objeto tiene dictadas el Ayuntamiento.”.
(Benidormeko Udala, 1956, 51 or.).

Bilatzen zena turismo barea zen, familiek oporrak lasaitasunez igarotzea hondartzaz eta naturaz gozatuz, eta atsedena hartzea. Horregatik, Benidormeko udalak desberdintze-estrategia erabili zuela esan daiteke: eskaintzen zena kalitatezko egonaldia zen, opor lasaiak paradisu batean. Lehiakideengandik bereizteko bere pertsonalitatea eta baliabide natural propioak erabili zituzten, Benidorm paradisu bat bihurtuz turistak erakartzeko.

Helburu hau lortzeko erabili zen modelo urbanistikoa “*ciudad jardin=lorategi hiria*” bezala ezagutzen dena da, ezaugarri nagusiak ondorengoak direlarik: Ikusmolde horizontala, altuera baxuko eraikinekin, familia bakarrarentzako txalet eta lorategi zabalez osatua.

Bestalde, gune batzuetan eraikin bloke irekiak ere aurreikusi ziren. Landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko trantsizio moduko bat zen eredu hau, landarekin harreman estua izaten jarraitzen zuena, hau da hiriaren erdigunean bizitzea bai baina ez pisu batean. Inspirazio bezala Kostalde Urdir frantsesean burututako hainbat proiekturen planoak erabili ziren, Jose Rojas enbaxadore frantsesak emandakoak (Arsenal, 2017).

7.5.1 1956ko BHAPOn edukia

Puntu horretara iritsita, komeni da definitzea Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat zer den eta zeintzuk diren honekin lortu nahi diren helburuak. HAPOa udalerriaren espazioa antolatzeko udalek erabiltzen duten tresna bat da, hiri-inguruneke elementu guztiak ahalik eta ondoen antolatuta egon daitezen. Funtzio bikoitza du beraz: herriaren/hiriaren arazoak konpontzea bilatzen da, etxebizitza, azpiegitura edo zerbitzu eza; eta hazkunde hau modu antolatuan egitea bermatzen da.

Irudia 14: BHAPOn espedientea eta jatorrizko planoak



Benidormen kasuan, aipatu bezala, konpondu

Iturria: “Benidorm, los orígenes de la ciudad vertical”

beharreko arazoak honako hauek zen gehienbat: biztanleriaren diru-iturri nagusia izaten hasi zen turismorako etxebizitzarik eza eta honetarako beharrezkoak diren azpiegitura eza. Hari beretik, tresna urbanistiko honek etxebizitzaren altuera eta bolumena, kaleen dimentsioak, eraikuntza eremu ezberdinen identifikazioa eta arauketa eta partzelazio-, urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuak garatuko diren faseak bezalako aldagaiak barne biltzen ditu.

1956ko BHAPOk dentsitate baxuko hirigintza planteatzen zuen, “ciudad jardín” eredu, zuhaitzen arteko familia bakarreko txalet isolatuak metro koadro handiko lursailetan, hondartzen lehen lerroan, turistentzat eroso izan zedin. Beraz helburu nagusia aisialdirako hiri bat sortzea zen, biztanleriak bizitza soziala eroso aurrera eramateko bezalako tamaina izango zuen hirigunea, modu horizontalean eraikia.

Honi hondartzen kontserbazioa ere gehitu zitzaion, lehen aipatu bezala. Horrela, 1956ko BHAPOn bost ataletan oinarrituta egituratu zen:

- LEHENENGO ZATIA. — Obra-lizentziak egiteko izapide orokorrak.
- BIGARREN ZATIA. — Teknikari pribatuen, obra eta instalazio zuzendarien erantzukizuna.
- HIRUGARREN ZATIA. — Esparru banaketa.
- LAUGARREN ZATIA. — Esparru bakoitzari aplikagarri zaizkion arau orokorrak.
- BOSGARREN ZATIA. — Esparru bakoitzerako ordenantzak.


Gauzak horrela, eremu banaketaren teknikaren bidez, herria esparru ezberdinetan banatu zen, eta eremu bakoitza bere aldetik arautu eta antolatu zen ordenantza independente bidez. Horrela eraikuntza-mota eta erabilera jakin batzuk errespetatzea (zorroztasun handirik gabe) lortzen zen, eremuari aukeratutako itxura eta funtzioa emateko.

Egin zen espazioen banaketa, 15. Irudian jasota dagoena. Honako hau izan zen:

- Alde Zaharreko gunea
- Alde Zaharreko zabalgunea
- Industria-tolerantziako eremua
- Bloke irekien eremua
- Txalet isolatuen eremua (Levanteko hondartza eta La Cala eremua)
- Txalet isolatuen eremua (mendebaldeko hondartza)
- Kirol-eremua
- Kanpoaldea

Ondo bereizitako zortzi gune, tokiko biztanleen beharrak asetzen zituztenak eta egungo eta etorkizuneko turismo eskaerei erantzuten zietenak.

Irudia 15: HAPOko hirigintza kalifikazioen planoan



Iturria: "Benidorm, Ciudad Nueva"

Zehazki, planaren izarrak Levanteko, Ponienteko eta La Calako eremuetako txalet isolatuak izan ziren.

- Levanteko hondartzaren eremuan, bi kale nagusi eraiki ziren (Europa eta Mediterraneo kaleak), hiri berriaren ornoak izango zirenak. Hauen inguruan txalet unifamiliarak eraikitzea aurreikusi zen, lurzorua lautasuna aprobetxatuz. Gainera, bloke irekiak eraikitzea ere adostu zen eremu honetako zati zehatz batean.
- Ponienteko hondartzaren eremuan lursail handiagoak aurreikusi ziren, txalet isolatuekin eta lorategi handiekin. Hala ere, hasiera batean partzelazioa aztertu zen bakarrik, eremu hau ez zegoelako egoera oso egokian eraikitzen hasteko zuzenean.
- La Cala inguruan ere txalet unifamiliarrentzako eremua aurreikusi zen.

Horrela, planean aurreikusitakoaren arabera, hiriko bideek % 23a okupatuko zuten, eta eraikinek % 26a okupatuko zuten. Beraz %51 libre geratuko litzateke. Bestalde, ur-horniduraren arazoari, herriko arazo garrantzitsuenetariko bat izan zen beti urteetan zehar, irtenbidea bilatu zitzaion. “Comisión de Fuerzas Vivas del Pueblo” eratu zen eskualdeko ura lortzeko kudeaketa egokiak egiteaz arduratuko zena, batez ere Polop de la Marina herritik gertu.

Irudia 16: lorategi hiria eta bloke irekiak elkarrekin



Irudia 17: familia batentzako txalet baten marrazkia



Irudia 18: familia batentzako txalet baten marrazkia



16, 17 eta 18 irudien Iturria: “Benidorm, los orígenes de la ciudad vertical”

Interesgarria izango litzateke jakitea nolako aurrekontua eta epeak ezarri ziren BHAPo aurrera eramateko, baina testuan ez da ezer zehazten honen inguruan.

8. BENIDORMEN EBOLUZIOA 1956KO BHAPOTIK AURRERA

Lanean zehar aipatu bezala, momentuko ideologia ekonomikoari jarraituz eta aprobetxatuz egin zen 1956ko HAPo, Benidormek ere lortuko zuelakoan turismoa erakartzea eta hazkundea lortzea. Andrés Martínez Medina arkitekto eta irakasleak esan zuen bezala, turismoa aukera bat bezala ikusi zen herria sostengatzen zuten arrantzaren eta lehorreko jardueren aurrean, eta hala izan zen, “Benidorm. Los Hoteles del Paraiso 1954-1964” aldizkarian baieztatu zenez, “El turismo se convirtió en el auténtico motor de la economía, luchando con esfuerzo frente a la precariedad de medios y un increíble esfuerzo para dar

satisfacción a la clientela” (Benidormeko udala eta Kultura Zinegotzigoa, 2005, 21 or.). Hazkunde ekonomiko hau batez ere hotel berrien irekieran eta turista berrien iritsierarekin ikusi zen. 1954. urterarte, 7 hotel zeuden zabalik herrian, eta hortik aurrera, hotel eta ostatu belaunaldi baten agerpena egon zen, beste 8 hotelen irekierarekin (Benidormeko Udala eta Turismo Zinegotzigoa, 2006).

Hotel berriek bai HAPOren aurretik, bai honen eskutik eraiki ziren txaletekin partekatzen zuten paisaia, beraien helburua hutsune bat betetzea zela kontuan hartuta (turista berrientzako lekua egotea). Izan ere, Espainiako klase ertain berria erakartzea zen helburua, baita Europakoa ere, batez ere alemaniarrek eta frantsesak, kalitate onaren bila zebiltzanak, prezio egokian. Eskaria eta eskaintza bat zetozen momentu honetan: Benidormek eskeintzen zuena hondartza zuri garbiak, hotel berriak tamaina familiarrekoak, oso txukunak eta bezeroari arreta pertsonalizatua ematen zietenak, eta paradisu sentsazioa ematen zuen herri lasaia zen. Eskaria ere ildo beretik zioan. *“Benidorm. Los Origenes de la Ciudad Vertical”* aldizkarian modu honetan deskribatzen da garai hartako Benidormeko udako egun bat: Udan hondartza eta bainua ziren nagusi goizetan. Arratsaldean erritua zen itsas hertzeko ibilaldia, eta gaua aire zabaleko zinemetan igarotzen zen, edukiera izugarria zutela (1.200-1.400 eserleku) egungo zinemei dagokienez. Diskotekak iritsi aurretik dantzalekuak (afaria, kopak, musika eta zuzeneko ikuskizuna) ziren arrakasta zuten lekuak turisten artean (Benidormeko Udala eta Kultura Zinegotzigoa, 2006).

Hotelen eta aisialdirako lokalen eskaintza handitzeaz aparte, ekitaldi kultural ugari antolatzen hasi zen udaletxea. Adibide esanguratsu bat Benidormeko Abesti Jaialdia izan zen, 1985. urteraino espainiar musika hedatzeaz arduratu zen jaialdia. Ekimen hau herriko udal langileek izan zuten kokagune turistiko gisa biztanleria egonkortzeko bide posibleekin amets egiten zebiltzan bitartean, eta Pedro Zaragozaren eskutik posible izan zen aurrera eramatea (festivalbenidorm.blogspot.com).

Benidormek proposatu zuen dentsitate baxuko turismo ereduak arrakasta handia izan zuen 60. hamarkadaraino, eta hori biztanleriaren eboluzioan ere isladatu zen, 10 urteren buruan (1950-1960), biztanle kopurua bikoiztu egin baitzen gutxi gorabehera. Izan ere hotelak bezeroak fidelizatzeaz arduratzen ziren, Benidormetaz maitemindu eta beraien bigarren

etxebizitza bertan erosi zezaten, txalet unifamiliar bat, La Calako eta Rinconeko eremuetan gertatu zen bezala, non biztanle alemaniarrek finkatu ziren.

Taula 1: Benidormeko biztanleria 1950. eta 1960. urteetan

Urtea	Biztanleria
1950	2.726
1960	6.259

Iturria: nik egina. Datuak: Foro- Ciudad.com Demografia de Benidorm (Alicante)

1956ko BHAPOk aurreikusi arren “*ciudad-jardin*” eraikuntza eredua Levante eta Ponienteko hondartzetarako, hurrengo urteetan zehar udal ordenantza berriak joan ziren idazten, urtean urteko eskariari egokitzeko asmotan, eta kasu gehienetan txalet isolatua aurreikusi arren, bloke irekiak eraiki ziren (jende gehiagorentzako etxebizitzak zirelako), 1959. urtean eta hurrengoetan Espainiako turismoak inoiz ikusi gabeko eztanda jasoko baitzuen. Hau izan zen 1956KO BHAPOn giltza garrantzitsuena: Malgutasuna etorkizunari dagokionez.

Aipatu bezala, planean herriaren lurak esparru ezberdinetan banatu ziren, bakoitzak bere arau eta eraikuntza eredu propioekin. Hala ere, arau hauek ez ziren zurrinak, eta honek momentuko turismo-dinamikari egokitzeko aukera eman zion Benidormi, eta horrela egin zuen.

Hala ere, dena ez zen aurrera eraman aurreikusi zen bezala. Plana argitaratu eta gutxira herritarrak (lurren jabeak) honek planteatzen zuen eredu urbanistikoa kritikatzeko eta zalantzan jartzen hasi ziren. Alde batetik, ez zen aurreikusi ekipamendu publikorako (osasun-zentroak, eskolak, elizak, etab.) lursailik. Beste alde batetik, txalet eta bloke baxuek ezin zuten erosle eta operadore turistikoaren gero eta eskari handiagoari erantzun, eta harrera-ahalmena ahalik eta espazio txikienean handitzeko beharra ikusi zen, hau da ahalik eta espazio gutxienean ahalik eta pertsona gehien bizi edo oporrak igaro ahal izatea. Honen ondorioz 1958an eta batez ere 1963an aldaketa esanguratsuak egin zitzaizkion 1956ko planari, honek zuen jatorrizko helburua (dentsitate txikiko turismo lasaia) iraganean utziz. Helburua lortzeko bidea bakarra eta argia zen: hiria gorantz hazi behar zen.

Benidormen eta honen aldatetetan zentratu aurretik, Espainian 60. hamarkadan eman zen fenomeno azaltzea komeni da, azken batean Estatuan hartu ziren erabakiak eta abian jarri ziren legeak eragin zuzena izan zutelako Espainia guztiko herrietan eta hauek izango zuten eboluzioan hurrengo urteei begira..

8.1 Espainiako turismo politikak eta masa turismoaren garapena

Masa-turismoa aisialdirako opor-helmugetara antolatutako turista kopuru handi baten desplazamendua litzateke. Fenomeno honen ezaugarri nagusia pakete turistiko estandarizatuaren kontsumo masibo da, hau da turista kantitate izugarriak opor-helmuga eta aisialdi plan berberak modu masiboan kontsumitzea, helmuga hori itota utziz.

Turismo mugimendu honek 1960. urtean izan zuen eztanda Espainian, izan ere, garaiko gizarteak oporrak igarotzeko gogokoen zuen plana hondartza eta eguzkia ziren, (eta horrela jarraitu zuen gutxienez 1997. urterarte ere) (*POUSADA, 2002*), eta hau zen Frankoren gobernuak nazioarteko turismoari eskaintzeko prest zuena ere. Ondorioz, eskaintzak eta eskariak bat egin zuten, eta Mediterraneoko probintzia batzuk eta Espainiako uharteak eguzki eta hondartzako turismo masiboaren nazioarteko epizentroa bihurtu ziren. Horrela, munduko turismoak Espainiako mediterranean hondartzetan igarotzen zituen oporrak, bertako eguzkiaz eta hondartzetaz gozatuz, Espainia masen nazioarteko turismoaren ikur bihurtu zelarik. Hala ere, esan beharra dago fenomeno honen sorreran eta sustapenean ez zuela bakarrik Estatu Zentralak eragin, zeren eta mediterranean kostaldeko eta espainiar irletako hiri eta herri askok aurreko hamarkadetan abian jarri zituzten nazioartean ezagunak egiteko hainbat publizitate kanpaina, hau da, turismoa erakartzeko motibazioa hiri eta herrietako agintariena eta herritarrena ere izan zen, ez bakarrik Estatu Zentralarena

Laneko 5. puntuan azaldu den bezala, Espainiar Gobernuak kostuetan lidergoa izateko estrategia turistikoa eraman zuen aurrera, ahalik eta merkatu handienara heltzeko, prezio baxuak ezarriz. Hau horrela, aurrera eraman ziren politika turistikoak helburu hori lortzeko asmotan egin ziren, ahalik eta turista gehien erakartzea, masa turismoa sustatzeko.


Fenomeno honen magnitudeak hobeto ulertzeko zenbakietara jotzea litzateke egokiena. Horretarako, lau aldagai ezberdinen eboluzioa aztertuko da: Espainiako biztanleria, Espainiara heldutako turismo kopurua, turismoagatiko sarrerak eta Espainiaren merkatu kuota turismo mundialean.

Taula 2: Espainiako biztanleria, Espainiara iritsitako turista kopurua eta turismoagatiko diru sarrerak 1940tik 2000 urtera

Urtea	Espainiako biztanleria (Milo pertsonatan)	Turista kopurua Espainian (Milaka pertsonatan)	Turismoagatiko sarrerak (Milo pesetatan)
1940		18,9	58,0
1945		39,2	34,6
1950	28,016	457,0	640,1
1955	28,977	1.383,4	4.664,1
1960	30,295	4.332,4	17,864,1
1965	31,936	11.079,6	66.172,5
1970	33,638	21.267,0	116.999,1
1975	35,574	27.359,2	199.852,7
1980	37,342	32.925,0	500.648,9
1985	38,408	39.672,0	1.374.677,0
1990	38,874	48.744,7	1.878.387,10
1995	39,722	58.350,0	3.161.000,0
2000	40,634	74.462,0	5.615.477,6

Iturria: nik egina. Datuak: Tena (2005)


Grafikoa 1: Espainiako biztanleria eta Espainiara iritsitako turista kopurua 1940tik 2000 urtera



Iturria: nik egin. Datuak: Taula 3

3. taulan eta 1. grafikoan ikusten den bezalaxe, Espainiako biztanleriaren hazkundera egonkorra izan zen urteetan zehar, bost urterik behin miloi batean handitzen zelarik gutxi gorabehera. Baina ez zen berdina gertatu estatura heltzen ziren turista kopuruarekin: 1950. urtean 457.000 turistak igaro zituzten oporrak Espainian, eta 10 urteren buruan, zenbaki hau ia hamar aldiz biderkatu zen, 4.332.400 turista jaso zirelarik 1960. urtean. Honek momentu horretako biztanleriaren %14,3 suposatzen zuen. Eta hau bakarrik hasieran izan zen: hamar urte geroago (1970. urtean) 21.267.000 izan ziren Espainiara iritsitako turistak, biztanleria 33.638.000 zelarik. Hau da, biztanleriaren %63,22a. Eta 1985ean iritsitako turistak estatuko biztanleria gainditu zuten. Puntu horretatik aurrera zenbakiak gora eta gora egiten jarraitu zuten gaur eguneraino, eta ondorioz, turismoagatik diru sarrerak ere masiboki biderkatu ziren.

Grafikoa 2: Espainiako turismoagatiko diru sarrerak 1940tik 2000 urtera



Iturria: nik egin. Datuak: Taula 3.

2. Grafikoan ikusi daitekeen bezalaxe, 20 urteren buruan (1950-1970) turismoagatiko diru sarrerak ia 25 aldiz biderkatu ziren: 4.664.100tik 116.999.100 pezetaraino, eta honek egonkortasun momentu bat ekarri bazuen ere defizita estaltzea edo gutxienez egonkortzea lortu zelako; azken batean, ekonomia menpekota eta ezegonkorra bihurtzeko bide bat ere izan zen.

Gobernuaren ahaleginak Espainiak Europako beste Estaturen industrializazio maila lortzeko kale egiten ari ziren, industriak aurrerapausoak izan arren, ez zelako lehiakorra nazioartean, eta beraz turismoaren diru-sarreraren menpekotasuna areagotu egin zen. Rafael Vallejo Pousadak (2002) esan zuenez, espainiar ekonomia “*monocultivo del sol*” eta “*economía del balneario*” bezala deskribatzen hasi ziren adituak 1960. hamarkadatik aurrera, hirugarren sektorearengan jartzen zeuden konfiantzaren eta pisuaren ondorioz. Turismoaren sektorean gizabanakoaren jokabideak funtsezko eragina duela jakinda, baita ekonomia globalak ere, eta honek turismo korrienteetan gorabeherak sortzea ekartzen du. Horrek esan nahi du Estatu baten kontroletik at kanpo faktore ugari daudela turismo globalaren norabidea markatzen dutenak. Vallejoren hitzetan:

“El turismo crecía espontáneamente; la riada turística regaba el país, pero el manantial se explicaba más por el comportamiento de los consumidores extranjeros, y de los agentes que canalizaban y controlaban estos flujos turísticos, que por las

excelencias de una política turística que, al fin y al cabo, no hizo más que nadar a favor de la corriente” (Vallejo, 2002, 230 or.)

Hau da ekonomia bat sektore honekiko menpekoegia izateak ezegonkortasuna eta urduritasuna sor dezake.

Ekonomialari eta teorialari ugari ohartarazi arren kontrolik gabeko hazkundearen ondorioen inguruan, 1974. urtean nazioarteko krisiaren ondorioz turismoagatiko diru sarrerak gutxitu egin ziren, eta honek merkataritza saldoa berriro ere negatiboa izatea eta kanpo zorren hazkundera ekarri zuen. Beraz krisi honek Espainiako sistema ekonomikoaren egiturazko arazoak azaleratu zituen. Hala ere, turismoaren sektoreak garrantzi handia izaten jarraitzen du gaur egun Espainian. Turismoaren Munduko Erakundearen datuen arabera, turista gehien jasotzen dituen munduko hirugarren herrialdea da, Frantzia eta Mexikoren atzetik (statista.com). Sektore honek BPGaren %11,6ko kuota izan zuen 2022an eta, 2.510.300 pertsonak egiten dute lan sektore honekin lotura zuzena duten lanbideetan, 2022ko datuen arabera (mundodeportivo.com).

8.2 Benidormen bilakaera turismoari eta urbanismoari dagokionez

8.2.1 1956-1962 tartea: masa turismoaren hasiera

1956ko BHAPOn indarrean sartu eta Benidormen lursailak eremu ezberdinetan banatu arren, “*ciudad jardín*” bezala izendatuak ziren lursail askotan bloke irekiak eraikitzen hasi ziren turisten isuri izugarriari erantzuteko asmotan. Izan ere, mediterranearen eremua zen Espainian turista gehien jasotzen zituen eremua Balear eta Kanariar irlekin batera, Europako ipar-mendebaldeko biztanleak hegoalderantz jotzen zutelako “antidoto” baten bila negu luze, hotz eta lainotsuetan. Horregatik, klima izan zela Espainia helmuga turistiko gisa hautatzearen eragin handiena izan zuen faktoreetako bat esan ohi da. Eguzkia eta hondartza bilatzeak urtarokotasun nabarmena (uztaila eta abuztua) sortu zuen, baita fenomeno turistikoaren kontzentrazio geografiko handia ere.

Honi Espainiako prezio baxuen faktorea gehitu behar zaio ere. Zehazki, Espainiako ekonomiaren garapen-maila hasiberriaren, administrazio publikoaren kontrol-politikaren eta

atzerriko enpresa handiak merkatu turistikoan sartzearen ondorioz prezioak baxuak ziren beste Europako Estatuekin konparatuz. Beraz, Europa mendebaldeko herrialde industrialetako biztanleek beren jatorrizko lekuetakoek baino zerbitzu hobekak jasotzen zituzten Espainian, kalitate-prezio proportzioan.


Guzti honen ondorioz Benidormera bai nazioartetik bai naziotik bertatik turista kantitate izugarria hasi zen iristen bertan oporrak igarotzeko asmotan, hasiera batean bi hilabetetan pilotzen zelarik dena gehienbat. Gainera, turismo eredu aldatu izanak (turismo minoritariotik masa turismora) turisten jatorria aldatzea ere ekarri zuen. Hasiera batean alemaniarrek ziren Benidormetaz gozatzen hurbiltzen ziren turista gehienak, honen hondartza lasaiak eta turismo minoritarioa aprobetxatzen. Baina masa turismoaren fenomenoaren ezaugarriekin batera Erresuma Batuko biztanleak izan ziren hurbiltzen hasi zirenak, baina ez aurreko turismo ereduaren bila, baizik eta eguzkia, prezio baxuak, hondartza eta festetaz gozatzen.

Hasiera batean aurrera eraman nahi zen desberdintze estrategiak ez zuen bat egiten abian jartzen ari zen turismo fenomenoarekin. Turistek bilatzen zutena hondartza eta eguzkia ziren, prezio baxuan eta zerbitzuen kalitateari garrantzi handiegirik eman gabe. Honengatik, Estatuarekin bat egin eta lidergo-estrategia kostuetan hasi ziren erabiltzen turismo estrategia gisa, masa-turismoari erantzuteko.

Guzti honek bai herritarren aldetik bai udaletxeko langileen aldetik erreakzioa ekarri zuen: 1956ko HAPOk ezin zion erantzun momentuko eskariari, eta eredu aldatu beharra zegoen.

Eskari turistikoak hotelak eta apartamentuak eskatzen zituenez, eskaintzarekin bat egitea pentsatu zela egokiena erabaki zen, eta 1958. urtean aldaketa nabarmenak txertatu zituzkion 1956ko HAPOri. Lehenik eta behin gehienez 5 solairuko eraikinak egiteko baimena eman zen, beti ere itsasoarekiko perpendikularrak baziren eta lurzatiaren mugatik gutxienez bost metro atzerago eraikitzen baziren (Jdiaz, 2012 abenduak 24); hauei “Tranbia-eraikinak” deitu zitzaizkien. Horrela hasi zen bolumen eraikigarria handitzeko lasterketa etengabea.

Irudia 17: Tranbia-eraikin baten planoak



Iturria: "Benidorm, los orígenes de la ciudad vertical"

Irudia 16: Benidorm 1960. urtean



Iturria: "Benidorm, los orígenes de la ciudad vertical"

Bigarren aldaketa garrantzitsuena eremuen antolaketaren izendapenetan eman zen. Adibidez hasiera batean “zona de casco antiguo” zen eremua “*ensanche de casco antiguo*” bezala berrizendatu zen. Honen helburua aurretik etxe unifamiliar bakarrarentzat ziren partzela handiak apartamentu blokeak eta hotelak eraikitzeko bideratzea izan zen.

Bolumen eraikigarria handitzeko lasterketa etenik gabekoa zen, alde batetik agente turistikoek botere publikoak presionatzen zituztelako eraikitzeko ahalmen handiagoak lortzeko asmotan, eta beste aldetik, Espainiara heltzen ziren turista kopurua izugarri hazten zelako urtetik urtera (4.332.000 turista 1960. urtean, 5.495.900 1961. urtean eta 6.390.400 1962. urtean) (Tena, 2005). Honen ondorioz etengabe eraldatzen zen 1956ko HAPO, momentu orotan udal ordenantza berriak gehituz. Adibidez, 1961ean ura biltzeko eta banatzeko proiektu berriei ekin zitzaizen, estolderiarekin batera. Honen helburu nagusia hondartzetan hondakin-isurketak saihestea zen, eta lurpeko ibilbide luzeak eta ponpaketak aurreikusten zituen proiektuak.

1962. urtean aldaketa esanguratsuak egiten zaizkio HAPOri, erosahalmen handiagoa zuten turistak erakartzeko asmotan. Horiekin, industria-tolerantziako eremua murriztu, 4 eta 5 izarreko hotel-proiektuei lehentasuna ematen (bolumenaren % 30eko igoerarekin) eta aurreko planean “*ciudad jardín*” bezala izendatutako eremuak “*zona exterior*” bihurtu ziren.

Baina aldaketa guzti hauek sartu arren ez zen lortzen agente turistikoek zein turistek eskatzen zutena asebetetzea. Eraikitzen ziren higiezinetatik ez zen ondo ikusten itsasoa, ez

zuten gaitasunik masa turismoarengatik etortzen ari ziren pertsona guztiak jasotzeko, eta eremu berdeak suntsitzen zituzten. Honi horrenbeste udal ordenantzaren ondorioz sortu zen dokumentu anabasa gehitu behar zai. Guzti honen aritik HAPO berri bat idazteko beharra sortu zen.

8.2.2 1963ko Benidormeko Hirigintza Plan Orokorra eta Hiri Bertikala

Lehen deskribatutako inguruabarrak direla eta, hirigintza-eredua aldatzeko eta altuera-mugarik gabe eraikitzeko ideiak hasi ziren mahaigaineratzen, edukiera handitzearen alternatiba bakar gisa, azalera bereberari eutsita. Ideia isuri honetatik poxpolo kutxaren teoria eta eraikigarritasun-koefizientea jaio ziren.

Kontatzen zenaren arabera, aurreko planaren inguruko berrikusketetan arkitekto batek tabako-pakete bat hainbat posiziotan jarri zuen, eta ondorioztatu zuen paketearen bolumena berbera dela edozein posiziotan jarrita ere. Hau da, tabako paketea etzanda zegoenean okupatzen zuen lursail zatia handiagoa zen tabako paketeak tente egonda okupatzen zuena baino, honen bolumena edo edukiera berbera izanda.

Irudia 18: Eraikinen tipologiaren eboluzioa



Iturria: Asi se lee Benidorm

18. irudian ikusi daitekeen bezala, 1958ko eta 1963ko eraikinek bolumen berbera dute, 4000 m³ alegia. Baina ezkerreko eraikinak lursailari dagokionez espazio gehiago okupatzen du eskumako eraikinarekin konparatzen bada. Eraikitzeko moduaren aldaketa honekin edukiera berbera duen etxebizitza eraikitzea lortzen da, baina lursaila gutxiago okupatuz. Honek eraikin

batetik bestera espazio libre handiagoak izatea ahalbideratzen du, hauek belardi, lorategi, tenis pista, parkeak edo erabilera publikoko lekuak bihurtuz.

Honekin batera eraikigarritasun-koefizientearen kontzeptua jaio zen, eraikinak gorantz modu librean haztea baimendu zuena. Zehazki, koefiziente hau erregela bat da, lursailaren metro karratu bakoitzeko zenbat metro koadro eraiki ditzakezun esaten duena.

Ondorioz etxe horratzek 20 eta 30. hamarkadetan zuten esanahia berreskuratzen hasi ziren nolabait. Garai hartan etxe horratzek Amerikako Estatu Batuetako ikur garrantzitsua ziren, modernitatearen eta garapen sozial eta ekonomikoaren seinale zuzena. Hala ere, Benidormek bilatzen zuena ez zen hiri industrial bat, non eraikin altuak elkarri itsatsita zeuden, horma erraldoi baten itxura emanez eta itotasunaren sentsazioa transmitituz; guztiz kontrakoa. Bilatzen zena hiria gorantz hastea zen bai, baina lurra aske geratu zedin.

Hala ere, ideia hau ez zen jaio 60. hamarkadan: Miriam Pomar Perez irakasleak bere “*Asi se lee Benidorm*” lanean Le Corbusier urbanistak *ciudad contemporánea* (1925) eta *ciudad radiante* (1935) liburuetan esandakoa azpimarratzen du:

*Por el contrario, la inserción del campo en la ciudad debería ser la solución para unos nuevos modos de vida más satisfactorios. Para ello, resultaba esencial proyectar la vida en altura. **Concentrar el hábitat en grandes rascacielos que liberasen el suelo, de forma que éste pudiese ser ocupado por una dilatada pradera urbana, salpicada de equipamientos y dotaciones de proximidad** (lo que no ocurre en el ámbito suburbano). Así, la nueva ciudad —Benidorm— resulta más sostenible desde el punto de vista sociológico, ecológico y, también, económico (...). (Perez, 2022, 32 or.)*


Beraz hiria gorantz hastearen helburua lursailak aske geratzea zen, bai bisualki bai bertan bizitzean eta oinez joatean kartzela erraldoi edo hormaz jositako lekuaren sentsazioa kendu, eta eremu zabal, berde, eguzkitsu eta askearen sentsazioa eman zedin.

Aipatu bezala, eraikin hauek modernitatearen zeinu bezala ikusten ziren 60. hamarkadan, eta Frankoren erregimenak irudi hau aprobetxatu zuen, modernitatearen sinbolo

gisa, nazioarteak zuen nazio atzeratuaren topikoa hausteko asmotan. Alabaina, etxe horratzen ikuspuntu hau 70. hamarkadatik aurrera guztiz aldatuko da, aurrerago azalduko den bezala.


Horrela, ideia guzti hauek 1963ko BHAPOn txertatu ziren, hasiera batean aurreikusi ez zen hiri eredu bat sortzeko aukera emanaz, garaiko turismoaren interes ekonomikoei jarraituz. Beraz zero-harraskarien hiriari baiezkota eman zitzaion. Eraikin altuetan eta bata bestearengandik nahiko urrun zeudenetan oinarritzen zen eredu berri hau, etxetik etxera eguzkiaren sarrera bermatuz, hiri irekia eta arnagarria sortzeko asmotan. HAPO argitaratu eta urte berean eraiki zen Benidormeko lehen zero-harraskaria, Fontlamar eraikina, metalez egindako modernitatearen ikur bihurtu zena.

Irudia 20: Fontlamar eraikinaren planoak



Iturria: "Benidorm, los orígenes de la ciudad vertical"

Irudia 19: Benidorm 1965. urtean



Iturria: "Benidorm, los orígenes de la ciudad vertical"

Hala eta guztiz ere, eraikuntza eredu aldaketa gogor hau ez zen mundu osoaren gustukoa izan. Alde batetik, 1956ko BHAPOn akats bera egin zen, ez zirelako aurreikusi eskola, ospitale eta antzeko ekipamendu sozialentzako eremuak. Beste alde batetik, ordurarte Benidorm gehien bisitatzen zuten turista alemanak joateari utzi zioten hein handi batean 1963. urtetik aurrea, herriak ia ukitu gabeko paradisu itxura galdu baitzuen. Beraz klase ertainetako jende askok itsas aurrean etxe orratz batean bizitzea liluragarritzat jo bazuen ere, turista europar askok ez zuten horrela hartu, eta, oso urte gutxiren buruan eredu berriari bizkarra eman eta beste kokapen bat bilatu zuten oporrak igarotzeko. Era berean, hondartza eta aisia bilatzen ari ziren britainiar askok guztiz egokia ikusi zuten Benidorm eta bere eredu berria, ordutik gaur

egunerarte Benidormera gehien joaten ziren turistak bihurtu zirelarik: *“Entre los sesenta y los setenta del siglo XX se produce una rápida revolución de las costumbres. Las vacaciones se transforman en vacaciones de diversión y playa. Los pubs invaden las calles, una costumbre importada”* (Benidormeko Udala eta Kultur Zinegotzigoa, 2006, 54 or.).

Honi jarraituz, garai hartan hasi ziren Benidorm eta Manhattanen arteko konparazioak egiten, eta ez zehazki zentzu onean. Benidormek modelo urbanistiko eta turistiko ez jasangarria zuela esaten zen, hiri trinko eta kongestionatua zela, masa turismoa masiboki esplotatzen zuena, ingurunea suntsituz eta planetari kaltea eginez. Kritika hauek gaur egunerarte irauten dute, askotan ezeztatu diren arren. Baieztapen hauen inguruan Francisco Muñoz Llorens mintzatu zen, eta bere hitzak *“Benidorm, los orígenes de la ciudad vertical”* aldizkarian daude gordeta:

“Creo que el origen de este concepto está en que todas las fotografías de divulgación turística que se hicieron, fueron desde abajo y con teleobjetivos en donde aparecen todas las torres superpuestas y pegadas dando la sensación de “muro”. Si se tomaran fotografías aéreas en la vertical o con escaso ángulo cónico, se vería la gran cantidad de espacios libres entre las torres, se vería como abunda la jardinería, las piscinas, las pistas de tenis, los espacios de juegos, etc. Y se comprendería que la comparación que se hace con Manhattan no tiene sentido y que no tiene nada que ver con este último conjunto donde la edificación es casi todo en línea de fachada y las separaciones entre grandes torres es mínima (...)” (Benidormeko Udala eta Kultur Zinegotzigoa, 2006, 41 or.).

Muñoz Llorenek baieztatzen duena hurrengo irudietan argi eta garbi ikusi daiteke:

Irudia 22:Levanteko hondartzako eremu urbanizatua, lurretik zuzen begiratu ezker.



Iturria: www.todoalicante.es

Irudia 21:Levanteko hondartzako eremu urbanizatua, goitik begiratu ezker



Iturria: Asi se lee Benidorm

24. eta 25. irudiak Levanteko hondartzako eremu urbanizatuaren argazkiak dira, baina bi ikuspuntu ezberdinetatik ikusita. Lehenengoari begiratu bat eman ezker, horma trinko itxura duela esan daiteke, eraikin oso altuak elkarrengandik oso hurbil eta hondartzan bertan. Baina bigarren irudia ikusitakoan ohartu daiteke horma itxura hori ilusio optiko huts bat dela, errealitatean eraikinak elkarrengandik urrun daudelako.

8.3.3 1964tik gaur egunerarte: Ongizatearen hiria

1963. urtean geldiezia zen mugimendu batean barnebildu zen Benidorm. Altuerak askatzearen ondorioz, hiria hazi eta hazi egin zen gorantz, urte gutxiren buruan Levanteko hondartzaren eremua etxe horratzez josi zelarik. Honekin batera aisialdirako lokalak, diskotekak, jatetxeak, dantzalekuak... zabaltzen hasi ziren, eta hotelen kopurua izugarri hasi zen urte gutxiren buruan (1966. urtean 30 hotel eta 31 ostatu zeuden hirian) (Benidormeko Udala eta Kultur Zinegotzigoa, 2006, 41 or.)..

Guzti hau 60. Hamarkadan eta 70. hamarkadaren hasieran eman zen turismoaren gorakada izugarriari erantzuteko ahaleginetan. Izan ere, 3. TAULAko datuen arabera, urte horretan 21 miloi turista inguru pasatu ziren Espainiatik, eta hauetatik askok mediterranean ertsas ertzean igarotzen zituzten oporrak. Gainera, hamar urteren buruan bidai agentziak biderkatu egin ziren eta hegaldien eskaintza handitu egin zen, Europako turistei aukera gehiago emanaz Espainiara etortzeko. Honi Alacanteko El Altet aireportuaren irekiera gehitu behar

zaio, asko erraztu zuena bidaiarien iritsiera Benidormera, beraz hotelen eskaria masiboki hazi zen.

Hau dela eta hotelak azkar eraikitzeari ekin zitzaion 1971 eta 1973. urte tartean, eskarira egokitzeko asmotan. Aipatu bezala, turismoaren jatorria eta turismo ohiturak goitik behera aldatu ziren, gehienbat Erresuma Batuko turistak heltzen zirelarik hirira aisialdi eta hondartzaren bila. Benidormeko eraikuntza-boomak goia jo zuela esan daiteke urte horietan, apartamentuetarako etxe horratzez aparte, hotel erraldoiak ere eraiki zirelako, hotel-fabrikak deituak. “*Sol y Playa*” turismoaren urrezko urteak izan ziren, Benidormek modu egokian aprobetxatu zituenak hazkunde ekonomikoa eta urbanistikoa lortzeko.

Irudia 23: Benidorm 70. hamarkada hasieran



Iturria: “Benidorm, los origenes de la ciudad vertical”

Beste alde batetik, aipatu beharra dago ere biztanleriaren hazkundera 60. hamarkadatik aurrera. Estatistika Institutu Nazionalaren datuen arabera 1960. Urtean 6.161 pertsona bizi baitziren hirian, eta 10 urtetan zenbaki hau bikoiztu egin zen, 12.003 biztanlera iritsiz (zenbaki hauek orientazio hutsak dira, Benidorm bigarren etxebizitzaz betea baitzegoen, eta familia asko ez ziren herrian erroldatzen). Urteak igaro ahala biztanleria hazi eta hazi joan zen, 1981. urtean berriro ere bikoiztuz, 25.544 biztanlerekin. Bestalde, aipagarriak dira 1991. urteko datuak; hauen arabera, Benidormek 42.442 biztanle zituen urte horretan, baina erroldaren erreferentziadatan udalerrian gaua igaro zuten pertsonen kopurua (“*Poblacion de Hecho*”) ia bikoitza izan zen, 75.322 pertsona zehazki.

Grafikoa 3: Benidormeko biztanleria eta Benidormen gaua igaro zuten pertsona kopurua 1960tik 2020ra.

Urtea	Biztanleria	Gaua igaro zuten pertsona kopurua
1960	6.616	6.259
1970	12.003	12.124
1980	25.544	25.322
1991	41.556	75.322
2000	54.319	e.d.e
2010	71.198	e.d.e
2020	70.450	e.d.e

Iturria: nik egina. Datuak: INE

Hurrengo urteetan beste bi HAPO idatzi ziren, 1974. urtekoa eta 1990. urtekoa, eta plan bakoitzak bere ekarpen garrantzitsuak egin zizkion hiriari eta bertako biztanleei.

Lehena uraren hornikuntzarekin zegoen arazoa eta bestelako gutxitasunak konpontzeko idatzi zen, abiadura bizian handitzen zegoen hiriak uren hornikuntza eta arazte ezin hobeak behar zituen eta, eskualdeko ur-baliabideak ahalik eta egokien aprobetxatzeko.

Bigarrenak Ponienteko hondartzaren eremua urbanizatzen hasteko lehen pausuak abiarazi zituen, Levante ingurua jada asetuta zegoelako. Gainera, ekipamendu kolektiboentzako eremuak aurreikusi ziren planean; eraikin berri guztiek beren lurzorua % 10rra udaletxeari eman behar ziela ezarri zen¹. Horrela, udalak lurzoru-erreserbak lortu zituen kultura, hezkuntza, kirol-zentro eta abarretarako erabili ahal izateko. Modu honetan 1956ko BHAPOTik arrastaka zegoen arazoa behin betiko konpontzea lortu zen.

Hala ere, plan hauek Benidormen garapen sozialean lagundu bazuten ere, Miguel Ángel Crespo Zaragoza eta Jesús Alba López ingeniari zibilek baieztatu zuten: *“El PGOU está concebido por y para el turismo, configurando un modelo de organización de la actividad*

¹ 1990. urteko BHAPOT, 75.c artikulua.

volcado en el turismo”(Crespo eta Alba, 2016, 59 or) ; beraz berriro ere argi geratzen da zeintzuk ziren Benidormen helburuak, 1956. urtetik sendo mantendu direnak gaur egunerarte ere: turismoa sustatzea.

Urteak igaro ahala Benidorm handitzen joan zen zentzu guztietan: biztanleria, turista kopurua, garraio azpiegiturak, etxe horratzak, zerbitzu publikoak, hotelak eta apartamentu turistikoak, urbanizatzea posible ziren lurrak, turismo-eskaintza ezberdinak... Baina hiriaren hazkunderen dimentsioak ulertzeko adierazle egokienak zenbakiak dira: Benidormeko udalak 2020an kaleratutako *“Benidorm en cifras”* liburuxkak hiriari buruzko datu guztiak azaltzen ditu; demografia, kultura, ingurumena, hiriaren jasangarritasuna, osasuna, segurtasuna...

2019ko datu demografikoen arabera, biztanleria totala 71.237 pertsonakoa da, hortik 24.693 estatuz kanpokoak direlarik, hau da %34,66. Urte berean 133 hotel zeuden erregistratuta (42.095 lekurekin), 8.544 apartamentu turistiko (31.750 tokirekin) eta 9 camping (11.596 tokirekin). Gainera, 51 bidai agentzia zeuden zabalik, eta 16 turismo enpresa aktibo. Aisialdiari dagokionez, 275 jatetxe, 636 taberna, 24 diskoteka eta 4 parke tematiko zeuden.

Turismo-eskaria aztertzeke adierazle esanguratsua hoteletako okupazioa eta hoteletan igarotako gau kopurua lirateke. Lehenengoari dagokionez, 2019ko hotelen okupazioaren urteko batezbestekoa %83,60koa litzateke, puntu altuenak abuztua eta iraila direlarik (%93,26 eta %91,30 hurrenez hurren); bigarrenari dagokionez, 2019. urtean 11.416.723 pertsonak igaro zuten gaua Benidormeko hoteletan, hauetatik 6.345.753 kanpotarrak zirelarik (%55,58). Honi ostatueta, apartamentu turistikoetako eta kanpinetako datuak gehitu behar zaizkio.

Zenbaki hauen garrantzia argi uzteagatik, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, 2019ko abuztuan Espainia osoko hoteletan 47.059.511 pertsonak igaro zuten gaua, eta hauetatik 1.396.642k Benidormen egin zuten, hau da 2019ko abuztuan Espainian gaua igaro zuten pertsonetatik %2,96ak Benidormen egin zuen, bere 133 hoteletan. Aldiz 2019ko urtarrila aztertzen bada, Espainia osoko hoteletan 15.506.154 pertsonak igaro zuten gaua, eta hauetatik 616.684k Benidormen igaro zuten, honek %3,97a erakusten du.

Hemen Benidormen turismoaren urtarokotasun eza ikusten da, urte osoko eskaintza turistikoa duelarik. Horrela, 2019an Espainiako laugarren helmuga turistikoena izan zen (Madrid, Bartzelona eta San Bartolomé de Tirajanaren atzetik).

Honen ondorioz Benidorm eta bere eredu turistikoa eta urbanistikoa goraiatuak eta kritikatuak izan dira aldi berean, baita kopiatzeko ahaleginak ere egin izan dira². Kritika ugarienetarikoa bere jasangarritasun eza izan da, baina urteekin frogatu izan da hiriak duen eredu ongizatearen hiriarena dela. Adierazle batzuk esateagatik, autoa oso gutxi erabiltzen da mugimenduak egiteko, hiria ez delako handia eta jendea oinez edo bizikletaz mugitzen baita (80 kilometroz ostatutako bizikletentzako bideak daude); modu honetan CO2aren emisioak urriagoak dira bestelako hirietan baino. Bestalde, 1963ko BHAPOTik hiri trinko baten alde egin izan da, lurzorua ahalik eta gutxien ukitzeko ahaleginetan; honekin pertsona kopuru handiari tokia egin ahal izan zaio ahalik eta espazio txikienean, ingurumen-inpaktua urrituz.

Gainera, azken 25 urteetan, Benidormeko biztanleria % 44 hazi den arren, ur-hornidura %18an murriztu da, eta ondorioz "Hiri Jasangarria" sari nazionala eskuratu zuen, "Uraren Zikloaren Kudeaketa" kategorian, Dinapsis Benidorm, lurralde-kudeaketa iraunkorrerako berrikuntza-zentroa abian jartzeagatik.

Bestalde, energiari dagokionez, Hotelen % 25ak energia berriztagarriak erabiltzen dituzte, instalazio fotoboltaiko handiekin, eta, kasu batzuetan, eguzki-energiatz % 100ean hornitzeko aukera ematen diete, ingurumenean eragin ahal den kaltea murriztuz. (Informacion.es).

Mota honetako inizatibien ondorioz eta baita azken urteetan bultzatzen ari den turismo iraunkor, adimentsu eta seguruagatik bihurtu da Benidorm hiri turistiko jasangarriaren adibide bat nazioartean. Hiri hau eta bere urteetan zehar izandako garapena ulertzeko Benidorm bakarrik festa eta hondartza dagoen hiri bat dela esaten duten bezalako iritziak albo batera utzi behar dira, begiak eta adimena zabaldu, eta hiriaren benetako pertsonalitatea ulertu, berdina

² Erresuma Batuko Bournemouth hirian, Erresuma Batuko Benidorm deitua, horko “sol, playa y fiesta” eredu kopiatzen ahalegindu izan dira. <https://www.informacion.es/benidorm/2023/06/30/bournemouth-benidorm-britanico-copia-modelo-alicantino-89308565.html>

izaten jarraitu duena Pedro Zaragoza Ortsen denboretatik: hiri turistikoa bat eraiki, baina bere esentzia galdu gabe, ongizatearen hiria izatea.


”Sólo podemos entender la trayectoria de Benidorm si la vemos como una gran empresa colectiva que se ha ido desplegando con una trayectoria clara e inequívoca, y eso es lo que hoy le permite seguir teniendo totalmente abiertas las puertas del futuro”(Benidormeko Udala eta Kultura Zinegotzigoa, 2006, 5 or.).

Irudia 25: Benidormeko argazkia gaur egun. La Cala eta Poniente



Iturria: www.elagoradiario.com

Irudia 31: Ponienteko hondartza gaur egun



Iturria: nik ateratako argazkia

Irudia 28: Levanteko hondartza gaur egun.



Iturria: www.expedia.es

9. ONDORIOAK

Amaiera bezala, Benidormen eboluzio sozial, urbanistiko eta turistikoa aztertu ondoren, lanaren hasieran planteatutako hipotesiari erantzungo zaio.

Benidorm mirari turistikotzat hartu izan dute batzuk, aldiz, beste batzuk bere eboluzio prozesu osoko xehetasun denak planifikatuak zeudela esaten dute. Pedro Zaragoza alkate egin zenetik herria guztiz aldatu zen, ideologikoki, sozialki eta fisikoki ere, eta 68 urteren buruan Espainiako hiri turistikoa handienetakoa izatea heldu da.

Bere historiako lehenengo HAPOk lorategi-hiria aurreikusten zuen, dentsitate baxuko turismoari eskainia, familiak opor lasaiak igaro zitzaten paradisu herri batean. Bertako biztanleek turismoak etorkizun oparoa emango zielakoan eman zituzten beraien lurak turismorako ekipamendua eraikitzeko, herriak ez baitzuen gaitasunik momentuan heltzen ziren pertsonak gaua igaro zezaten. Hala ere, Pedro Zaragozak bazekien Benidormen historia ez zela 1956ko HAPOrekin bukatuko, eta horregatik planean ezarritako arau ugari malguak ziren, marjin bat utziz etorkizunak ekarriko zituen aldaketei.

Arrazoi osoa zuen Pedro Zaragozak; izan ere, Espainia masa turismoaren ezteandaren epizentroa izan zela esan daiteke, urtez urte heltzen ziren turisten kopurua modu harrigarrian biderkatzen zelarik. Honek eskeintzen zuen “*sol y playa*” eredua, prezio merkeekin, zen 60. eta 70. hamarkadetako turistek bilatzen zutena, eta Benidorm prest egon zen eskari honi modu ezin hobean erantzuteko. Horretarako garatu zen 1963ko HAPO, altuerak askatzeko.

Jaio zen hiria ez zen hasiera batean aurreikusi zen lorategi herria, baina turismoaren eskari izugarriari erantzuteko era bakarra gorantz haztea zela argi izan zuten bai biztanleek eta bai agintariak. Hiri bertikala 1963tik aurrera sortu bazen ere, hiriak bere pertsonalitatea ukitu gabe mantendu zuen: klase ertainarentzako oporretako hiria, hondartzaz eta eguzkiaz gozatzeko, eraikinen artean eremu berdeekin. Pertsonalitate hau gaur egunerarte mantentzen da, indarrean dagoen 1990ko HAPOk lurzoruari ematen dion babesarela eta.

Idatzi ziren HAPOez aparte, urtez urte ordenantza ezberdinak garatu zituen udaletxeak, eraikuntza arau berriak txertatuz edo aurrekoak aldatuz, momentu orotan eboluzionatuz turismo eskariaren arabera. Hazkundera azkarra eta masiboa izan zen arren, argi dago ez zela izan kontrolik gabekoa, askoren ustetan hala izan bazen ere. Bere historiako lehen HAPOtik gaur egunerarte hazkundera kontrolatua eta planifikatua izan da, bai ordenantza bidez bai idatziak izan diren HAPO ezberdinen bidez.

Beraz, ez da esango Benidorm kokapen pribilegiatu batean ez dagoenik bai klima bai geografia aldetik, ezta ez zuela izan Francoren Gobernuaren babesa bere interesak aurrera ateratzeko, baina argi dagoena da zerbait gehiago egon zela Benidorm kasuaren arrakastan: urtez urteko plangintza zehatza bai HAPO bidez bai udal ordenantza bidez, egoera ezberdinei egokitzeko gaitasuna, turismoaren eskariari azkar eta efizienteki erantzuteko ahalmena, eta, batez ere, bertako biztanleriaren zerbait handia izateko anbizioa izan dira Benidorm gaur egun dena egin dutenak.

Lanarekin bukatzeko, Pedro Zaragoza Ortsen hitz batzuk txertatuko dira, baita bere argazki bat Benidormeko 1956ko planoarekin, gaur egun bihurtu den hiriarri begira.

“Benidorm es creación de todo nuestro pueblo, y todos los benidormenses son titulares de su patrimonio.

Sabía que la ciudad se iba a desarrollar y quise que lo hiciera de una forma humana.

Si quieres que la gente venga a tu pueblo para pasar sus vacaciones, tú debes estar preparado para acomodarlos, no solo a ellos, sino también a sus culturas.” (Pedro Zaragozaren hitzak; aipatuta Ponce, 2022, 14-15or.)

Irudia 34: Pedro Zaragoza Benidormeko antzinako planoei begira, atzean gaur egungo Benidorm duelarik



Iturria: elcierredigital.com

10. BIBLIOGRAFIA

- Arcoraci, Eliana (2009). *Economía y Políticas Turísticas. Carreras de Turismo y Hotelería.* Universidad Tecnológica Nacional. [PDF artxiboa]. <http://www.utntyh.com/wp-content/uploads/2009/11/UNIDAD-8-.POLITICA-TURISTICA>
- Arsenal, Leon (2017). *Aquellos fabulosos veraneos.* EDAF.
- Bayón, Fernando; González de Souza, M^a Ángeles, Alonso, M^a Cruz eta Gómez-Luengo, Elisa (1999). *50 años del turismo español: Un análisis histórico y estructural.* Editorial Universitaria Ramón Areces.
- Benidormeko Udala (1955). *Así Será Benidorm.* Benidormeko Udala [PDF artxiboa]. https://contenidos.benidorm.org/sites/default/files/documentos/asi_sera_benidorm_2.pdf
- Benidormeko Udala (1996). *Memoria del Plan General de Ordenación Urbana de 1956.* Benidormeko Udala [PDF artxiboa]. https://contenidos.benidorm.org/sites/default/files/documentos/ordenanzas_de_construccion_1955_3.pdf

- Benidormeko Udala (2022). *Texto refundido Normas Urbanísticas y Ordenanzas del PGMO 1990*. Benidormeko Udala [PDF artxiboa] <https://contenidos.benidorm.org/sites/default/files/descargas/2022-02/TR%20NORMAS%20PGMO%201990%20BENIDORM%20ENE%202022%20DILIG.pdf>.
- Benidormeko Udala eta Kulturako Zinegotzigoa (2005). *Benidorm. Los Hoteles del Paraiso 1954-1964*. Benidormeko Udala, CAM Obras Sociales eta Costa Blanca-ko Turismo Saila. [PDF artxiboa]. https://issuu.com/lovefortourism/docs/benidorm._los_hoteles_del_paraiso
- Benidormeko Udala, Kulturako Zinegotzigoa (2006). *Benidorm. El origen de una ciudad vertical 1956-2006*. Generalitat Valenciana eta CAM Obras Sociales. [PDF artxiboa] [PDF artxiboa]. <https://www.visitbenidorm.es/bd/archivos/archivo140.pdf>
- Crespo, Miguel Angel eta Alba, Jesus (2016). *Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Benidorm*. [PDF artxiboa]. https://benidorm.org/sites/default/files/documentos/01-memoria_p1_0.pdf
- Carreras, Albert eta Tafunell, Xavier (2006). *Estadísticas históricas de España. Siglos XIX-XX. 3 volúmenes*. Madrid: Fundación BBVA. [PDF artxiboa]. https://www.fbbva.es/wp-content/uploads/2017/05/dat/DE_2006_estadisticas_historicas.pdf
- Espinosa, Ana. (2013). *La evolución del turismo en España. El ejemplo de Benidorm* (Alicante). [PDF artxiboa]. https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/27695/6/Benidorm_Evolucion.pdf
- Gaviria, Mario, Iribas, José Miguel, Sabbah, Françoise eta Sanz, Juan Ramón (1977). *Benidorm, ciudad nueva*. Editora Nacional

-
- INE - Instituto Nacional de Estadística. *Viajeros y pernoctaciones por puntos turísticos*. INE. <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=2078>

 - Jdiaz. (2012, abenduaren 24). *DE BENIDORM, UN MODELO DE DESARROLLO URBANO (Y XVI). BENIDORMERÍAS*. <https://jdiaz474.wordpress.com/2012/12/24/de-benidorm-un-modelo-de-desarrollo-urbano-y-xvi/>

 - Maestre, A. (2019, apirilak 3). *¿Qué tiempo hace en Benidorm?*. Benidorm DMC. <https://www.benidormdmc.com/tiempo-en-benidorm/>

 - Pellejero, Carmelo (2002). La política turística en la España del siglo XX. Una visión general. *Historia contemporánea*, (25), 233-265.

 - Ponce, Miriam (2022). *Asi se lee Benidorm*. Universiada de Alicante. [PDF artxiboa]. <https://web.ua.es/es/pedrozaragoza/documentos/2022/asi-se-lee-benidorm/asi-se-lee-benidorm-2.pdf>

 - Pousada, Rafael (2002). Economía e historia del turismo español del siglo XX. *Historia contemporanea*,(25), 203-232.

 - Pousada, Rafael (2013). Turismo y desarrollo económico en España durante el franquismo, 1939-1975. *Revista de la historia de la economía y de la empresa*, (7), 423-452.

 - Tena, Antonio (2005). Estadísticas históricas de España: siglo XIX-XX. Capítulo 8: Sector exterior. *vol. 2, p. 573*. Fundacion BBVA. [PDF artxiboa]. https://e-archivo.uc3m.es/bitstream/handle/10016/5840/sector_tena_2005.pdf

 - Turismoko Idazkaritza Nagusia (1990). Libro blanco del turismo español. *Estudios turísticos*, (108), 3-60.

- Velasco, Maria (2005). ¿Existe la política turística? La acción pública en materia de turismo en España (1951-2004). *Política y Sociedad*, 42 bolumena (1), 169-195.

WEB ORRIALDEAK

- Admin. (2023, urtarrilak 22). *Ejemplos de empresas turísticas con estrategia de liderazgo en costes*. Juanluisfernandez.es. <https://juanluisfernandez.es/liderazgo/ejemplos-de-empresas-turisticas-con-estrategia-de-liderazgo-en-costes/>
- Alegre, F. A. (2022, otsailak 25). *La historia de Benidorm*. HISTOBENIDORM <https://histobenidorm.blogspot.com/2022/02/benidorm-antes-de-1963-el-paraiso.html>
- Benidormeko Udala (2024, urtarrilak 18). *Benidorm en cifras*. <https://benidorm.org/es/ayuntamiento/concejalias/empleo-y-desarrollo-local/publicaciones-aedl/benidorm-en-cifras>
- Blanca, C. A. (2023, abuztuak 17). *La historia de Benidorm*. Camping Arena Blanca. <https://www.campingarenablanca.com/la-historia-de-benidorm/>
- Blanca, C. A. (2023, abuztuak 17). *Los rascacielos de Benidorm*. Camping Arena Blanca. <https://www.campingarenablanca.com/rascacielos-de-benidorm/>
- Calvariperiódicodigital. (2022, 7 febrero). El primer rascacielos de Benidorm. CALVARI. <https://calvarielperiodicdelcordebenidorm.com/2022/02/13/el-primer-rascacielos-de-benidorm/>
- Claros, M. A. M. (2021, abuztuak 4). *Implementación de estrategias para el sector turístico*. Revista Empresarial & Laboral. <https://revistaempresarial.com/industria/implementacion-de-estrategias-para-el-sector-turistico/>
- Corazón, J. (2023, ekainak 30).” *Así es Bournemouth, el «Benidorm de Reino Unido» que copia la fórmula de playa y fiesta*”. Información.

<https://www.informacion.es/benidorm/2023/06/30/bournemouth-benidorm-britanico-copia-modelo-alicantino-89308565.html>

- Costa Real. (2020, maiatzak 11). *Benidorm- la historia de un pueblo pesquero*. Costa Real. <https://www.costareal.eu/es/noticias/126/benidorm-historia-de-pueblo-pesquero-costareal-eu/>
- *Datos Demograficos de Benidorm - diputación de Alicante*. <http://documentacion.diputacionalicante.es/3demogr.asp?codigo=03031>
- De Benidorm VisitBenidorm, T. *Benidorm, una tierra llena de historia. Historia del turismo de Benidorm-Turismo de Benidorm VisitBenidorm*. VisitBenidorm. <https://www.visitbenidorm.es/ver/1322/benidorm--una-tierra-llena-de-historia--historia-del-turismo-de-benidorm.html>
- De Benidorm VisitBenidorm, T. *Sostenibilidad Benidorm-Turismo de Benidorm*. VisitBenidorm. <https://www.visitbenidorm.es/ver/3869/sostenibilidad-benidorm.html#:~:text=%C2%BFY%20cu%C3%A1%20es%20el%20secreto,ba%C3%B1ada%20por%20el%20Mar%20Mediterr%C3%A1neo>.
- Dominguez D. (2020, ekainak 5). *España, 50 años bajo el sol del turismo*. OMAL <https://omal.info/spip.php?article9203>
- Dq Cursos Turismo. (2022, ekainak 23). *Qué es el turismo de masas o turismo masivo. definición y ejemplos*. Cursos de Turismo Online. <https://cursosdeturismoonline.es/turismo/turismo-masas-turismo-masivo/>
- Edificabilidad. Qué es y cómo se calcula - MRS Constructores. (2024, urtarrilak 25). MRS Constructores. <https://mrsconstructores.com/edificabilidad/#:~:text=Coeficiente%20de%20Edificabilidad%3A%20Esto%20es,un%20metro%20cuadrado%20de%20casa>.

- *Evolución de la población de España desde el año 1950.* (s. f.). EpData. <https://www.epdata.es/evolucion-poblacion-pais-ano-1950/67eab698-fc83-46e9-8d78-0886680836bf/espana/106>
- *Evolución de la población de España desde el año 1950.* EpData. <https://www.epdata.es/evolucion-poblacion-pais-ano-1950/67eab698-fc83-46e9-8d78-0886680836bf/espana/106>
- Galindo P. (2008, apirilak 2). *Pedro Zaragoza Orts.* Real Academia de la Historia. <https://dbe.rah.es/biografias/85503/pedro-zaragoza-orts>
- George. (2023, azaroak 2). *Países más turísticos del mundo.* Mundodeportivo. <https://www.mundodeportivo.com/uncomo/educacion/articulo/paises-mas-turisticos-del-mundo-49726.html#:~:text=A%20continuaci%C3%B3n%20te%20damos%20una,de%20turistas%20durante%20el%202021.>
- *Habitantes Benidorm 1900-2022.* Foro-Ciudad. <https://www.foro-ciudad.com/alicante/benidorm/habitantes.html#EvolucionGrafico>
- Hosteltur. (2018, uztailak 3). *Infografía: Evolución del turismo en los destinos de sol y playa.* Hosteltur. https://www.hosteltur.com/116402_infografia-evolucion-turismo-destinos-sol-playa.html
- *Mapa de Benidorm.* Mapapel. <http://www.mapapel.com/map/benidorm/#>
- Mercader, A. (2017, ekaina). *Benidorm: Érase una vez un plan.* Revista Plaza. 33 bolumena. <https://valenciaplaza.com/benidorm-erase-una-vez-un-plan>
- Mercader, A. (2023, 25 enero). *“Benidorm pierde el 13,7% de pernoctaciones hoteleras pero sigue como tercer destino peninsular”.* Alicanteplaza. <https://alicanteplaza.es/benidorm-pierde-13-7-pernoctaciones-hoteleras-tercer-destino-peninsular>

- Navarro, M. J. (2022, abuztuak 10). *Pedro Zaragoza, el exalcalde de Benidorm que ideó el turismo de sol, playa y rascacielos*. Elcierredigital. <https://elcierredigital.com/cultura-y-ocio/672127420/pedro-zaragoza-alcalde-benidorm-invento-turismo-europeo-sol-playa-rascacielos.html>
- *Origen y 1959. ORIGEN DEL FESTIVAL DE BENIDORM*. FestivalBenidorm. <https://festivalbenidorm.blogspot.com/p/festival-de-la-cancion-de-benidorm-1959.html>
- Rodríguez-Rata, A. (2018, irailak 15). “*Benidorm, de pueblo pesquero a Manhattan mediterráneo*”. La Vanguardia. <https://www.lavanguardia.com/cultura/20180915/451800483753/benidorm-pasado-y-presente-pueblo-pesquero-manhattan-mediterraneo.html>
- Sampedro, S. (2022, abenduak 22). *El mito del microclima de Benidorm es verdad: por qué siempre es primavera en la capital turística*. El Español. https://www.elespanol.com/alicante/20221222/microclima-benidorm-verdad-siempre-primavera-capital-turistica/727677471_0.html
- Sampedro, S. (2022, azaroak 28) . *El día en que Benidorm abrazó el mar: así cambió un pequeño pueblo pesquero la avenida del Mediterráneo*. El Español. https://www.elespanol.com/alicante/20221128/benidorm-abrazo-cambio-pequeno-pesquero-avenida-mediterraneo/721677827_0.html
- Sampedro, S. (2023, apirilak 30). *50 años de mítico hotel Don Pancho: cuando hacer grande a Benidorm era una cuestión de Estado*. El Español. https://www.elespanol.com/alicante/economia/turismo/20220517/mitico-hotel-don-pancho-grande-benidorm-cuestion/672933015_0.html

- *Turismo en España: número de trabajadores 2009-2022* (2023, irailak 12). Statista. <https://es.statista.com/estadisticas/534360/trabajadores-afiliados-a-la-seguridad-social-en-el-sector-turistico-en-espana/>
- Vicente, A. (2023, otsailak 11). *Uno de cada cuatro hoteles apuesta por las renovables para afrontar los costes energéticos*. Información. <https://www.informacion.es/benidorm/2023/02/11/cuatro-hoteles-apuesta-renovables-afrontar-82102582.html>
- Villasol, C. (2022, apirilak 27). *Historia de Benidorm - Camping Villasol*. Camping Villasol. <https://www.camping-villasol.com/blog/historia-de-benidorm/#:~:text=Aunque%20Benidorm%20tiene%20un%20origen,1325%20la%20ciudad%20de%20Benidorm>